IÑAKI FRIERA

Lehorreko paterak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2001 Iñaki Friera
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2001eko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Lehorreko pateretan itotzen direnei.

Udazken koloretan,
landen lurrinak zeharkatuz,
hitaz oroit eta higan nauk,
hain soil hire heriotzean,
hain xume, adiorik gabeko
partitzean.

BENITO LERTXUNDI

Ceuta, 1999ko ekaina

«Bienvenidos» zioen seinale uger batera hurreratu ziren Ahmed eta Abdurahman. Han hasten zen bi gazteen herriraino iritsiriko istorio itxaropentsuetan Ceuta zeritzoten hiringurua. Atzean gelditu ziren, esperantzaren lilurak lanbroturik, Beni-Mellaleko zelaietan emandako sei hilabeteak, atsedenik gabeko orduak, eguzkitik eguzkira arteko jardunak.

Abdurahmanek begiak jaso zituen zerurantz, Alari haraino lagundu izana eskertzeko. Gero, eskua pausatu zuen Ahmeden sorbalda izerdituan.

– Ceuta! –murmurikatu zion, apal, lotsati, esatea sinestea bezain zaila balitz bezala.

Ahmedek egindako bidaian bilatu zuen bere jainkoa. Pausoz pauso itzuli zen egunez ezkutalekutzat hartutako lekuetara, gauez ibilitako bideetara, bizi izandakoa lipar batez berregin nahian. Buruko mina sentitu zuen, oroimenaren bizipenak lokiak lehertzekotan. Eskuak estutu, ezpainak hozkatu eta ahaleginak egin zituen be-

gietatik erortzen hasiak ziren malko gaziei eusteko; alferrik, horregatik. Begi nini umelak hurbileko mendietan iltzatu zituen, lekutan galdutako beste mendi batzuetara zihoakiola gogoa. Abdurahmanez oroitu zen, Erfud utzi eta Europara joateko prest zegoela esan zion goizaz, alegia. Brastakoan bota zuen eskuan zerabilen artzain makila eta lasterka joan zen etxera, abagunea galtzeko prest ez zegoela jakinarazteko etxekoei.

Aurrera segitu zuten, bideari lotuta, txapatxapa. Jende gutxi zebilen hiringuruko auzoetan. Erdialderantz zihoazen kalean zebiltzan bakarrak, hitz eta pitz; emakumeak eta atsoak kale bakartietan, atarien ondoan jarrita, berba eta berba, egunaren gorabeherez mintzo. Ahmed eta Abdurahman ez ziren oharkabean igaro emakume berbalapiko haien aurrean. Ohituak ziren atzerritarren joan-etorriekin, eta are ohituago uda hurbiltzen zen sasoietan. Bazen, haatik, penaz eta amorruz begiratzen zienik, akaso ongi etorria ematen zuen sarrerako seinalean «gizonemakumeen trafikatzaileen erresumara» gehitzeko irrikan gelditzen ziren haiexek.

Laster heldu ziren portura. Bestelakoa zen giroa: jendea han eta hemen biltzen zen, bertako kafetegi edota jatetxeetako terrazetan, ilunabarrak zekarren freskoaz jantzi nahian, egunaren bero zarpaila eranztea nekosoa bazen ere. Tabernariak lasterka zebiltzan, bezeroek behin eta berriro eskaturiko freskagarriak hara-hona zerbitzatzen. Deigarria zitzaien kaleko durundia, jendearen berbaroa, ilargi agertu berriari uluka eta intzirika zebilzkion zakurrak, tabernetan biltzen ari ziren oihaletako burdinen kirrinka. Harrabots hark ez zuen zerikusirik eurek aspaldi utziriko sutondoko elkarrizketa lasaiekin, non lehengo ohitura eta istorio zaharrak nahasten ziren gazteak apurka-apurka liluratu eta sorgintzen zituen Europari buruzko istorio handinahikoekin.

Ceutako kaira hurreratu ziren. Han, urrun eta hurbil batera, egon behar zuen biek irrikatzen zuten ametsak: Europak. Ahmedek ezpainen kontra eraman zuen larruzko zorroa, biak itsasoz beste aldera igarotzeko eskatzen zieten eskandaluzko diru kopurua gordetzen zuena. Ezpainetara eraman eta musu eman zion.

Halako batean, gazte bat alboratu zitzaien:

– Ederra izan behar du, ezta?

– Zer? –erantzun zion Ahmedek.

– Ederra izan behar duela diot. Gustatuko litzaizueke beste aldera joatea?

Ahmedek eta Abdurahmanek elkarri begiratu zioten, gazte hura izango ote zen haiekin harremanetan ipini behar zen laguntzailea? Gazteak ez zien ezbaika aritzeko aukerarik eman:

– Nik badakit nork lagun diezazuekeen, horrela nahi izatera.

– Nork? –itaundu zion Abdurahmanek, bidean hainbeste aldiz aipaturiko zuhurtasuna eta egonarria beste baterako utzirik.

Gazteak keinu batez bere atzetik joateko esan eta, portutik larregi urrundu gabe, etxarte estu batera eraman zituen, atzean, noiz algara bizian, noiz isilka, kontu kontari uzten zituztenen begirada errukiorren jomuga zirela oharturik.

Kale itsu hartako atari zikin batera heldu eta atzera-aurrera birritan begiratuta, bertan ostatua emango zietela esan zien, harik eta Europara eramango zituen laguna haiekin harremanetan jarri arte. Hartarako, gazteak esan bezala,

egun bat edo beste igaro beharko zuten beste etorkin batzuekin batera, Polizia zelatan zebilen-eta egunik egokiena bilatu behar zelako itsasartea zeharkatzeko. Dena den, bi gazteak lasaitu nahian-edo, ostatua prezioaren barruan zegoela gogoratu zien.

Beste barik atarira bultzatu zituen, eskaileretan gora egin eta bigarren solairura helduta atea jo zuen. Gizon lodi batek zabaldu zien.

– Atunak!

Sartzeko eta ondoko gelara joateko agindu zien, inolako azalpenik gabe. Gazteari begira geratu ziren Ahmed eta Abdurahman, eskaileretan behera zihoala, alartzea zeharkatu eta etxearen ilunean sumatzen zen giro etsigarrian murgiltzeko nahikoa adore biltzeko arnasa hartzen zutelarik. Zalantza-malantza hartatik atera zituen gizonaren ahots nekatuak, kanpoan edo barruan segitu behar zuten erabakitzeko unea heldua zela arranguraz esanda, atea ixteko zirkin eginez.

Sartu egin ziren, eta zur eta lur gelditu Aziz zeritzotenak beste gizon batzuk zeuden gela ilun, bero eta umelera eraman zituenean. Hogeita bi lagun zeuden lau gelatan banatuta; bosna

lastamarrega, zahar eta lohi. Mugimendurik ez, ezta iritsi berriak nortzuk ziren ikusteko ere, itxaropenaren eta desesperazioaren arteko mugan, isilik, geroari loturik, iragana ahaztu ezinik.

Hondoko hormaren alboan jesarri ziren, bizkarra paretaren kontra. Alkandora azpian zeraman zorroa sentitu zuen Ahmedek, eta indarrez estutu zuen taupada arinean zebilkion bihotzaren aurka.

Hitzik gabe, inguruan zeukaten egoera latz hari beha aritu ziren lehen uneetan: leiho bakarra itxita zegoen, eta kanpoko egurrezko kontraleiho urratuetatik sartzen ziren gela apur bat argitzen zuten eguzki izpi bakarrak. Astiro ohituz joan ziren, hasieran sumaturiko kiratsa ere eramangarri egiten zitzaielarik. Bero sapa egiten zuen, berezko beroa askoz handiagoa baitzen gela umel hartan, gizonen gorputz biluztuei izerdia jarioka, tantaka.

Ahmed jaiki eta Azizen bila joan zen. Terrazan zegoen, bakarrik, haizemaile handi baten ondoan eta eguzkitik babesten zuen oihal urdin baten azpian jesarrita.

– Gose gara.

Gizonak sukaldean zegoen janari pote piloa erakutsi zion:

– Har ezazue bana eta ondo erabili, gaurkoz ez duzue besterik izango eta.

Janari poteak zaborraren alboan zeuden, harekin nahasturik. Eltxoek zaborraren inguruan egiten zuten hegan, etengabe, lekuari zerion hatsak ekarrita. Hormak pinturaz soiltzen hasiak ziren, eta nabarmenki erakusten zituzten haien aurka jaurtiriko pote hustu berriek utziriko zartatu handiak eta orbanak. Ahmedek nazka sentitu zuen berarentzako eta lagunarentzako potea aukeratzerakoan.

Gelara itzulita hizketan aurkitu zuen Abdurahman:

– Rachid da, *Oued Zem*ekoa.

– Urte askotarako.

– Rachidek hilabete darama korta honetan. Hasieran bizpahiru egun izango zirela esan zieten; baina, egunak joan egunak etorri... Polizia zelatan ei dabil eta hainbat patera lantegi itxi ditu duela oso gutxi. Horregatik atzeratu da irteera. Bigarren aldiz saiatuko da itsasartea igarotzen. Duela sei urte ziria sartu zioten: txalupan

igo eta bueltaka eraman zituzten, azkenean Marokoko kostaldean uzteko, Europa zela esanda. Hauek, aldiz, fidatzekoak dira.

Ahmedek janari potea eman zion lagunari eta hondoko hormara joan zen jesartzera. Berehala elkartu zitzaion Abdurahman:

– Ez zara batere atsegina izan.

– Entzun, Abdurahman, ez dut jendearekin hitz egiteko gogorik. Gainera, badakizu zure eta nire arrazoiak oso ezberdinak direla. Neuk ez dut Europako ametsa sinesten, ez da hori kontinentera naraman arrazoia.

– Baina gizonok gure egoera berberean daude, hilabete luze daramate *izoztegi* honetan, kalera irten barik.

– Nork esan dizu gure egoeran daudela? Nori sinetsi behar diozu kontatu dizun istorioa? Eta berton badaude bidaia ordaintzeko sosik ez daukatelako? Eta gure dirua lapurtzeko asmotan badabil? Entzun, Abdurahman, zuk lan bila joan nahi duzu Europara, aberastuko zarelakoan; nik, aldiz, badut beste zereginik, oso ezberdina, eta ez dut inorekin nire patua banatzeko asmorik.

Potea zabaldu zuen Abdurahmanek: saltxitxa egosiak ziren, iraungiak; gozoak, edozelan ere.

Ahmedek, ordea, begiak indarrez itxi eta eskuak eraman zituen burura, irrintzika zetozkion irudiei bidea trabatu nahian. Ezpainak bildu, zimurtu eta estutu zituen, oroimena mendean hartu guran; alferrik, geroago eta mingarriagoak baitziren *mezhet*aren txistu biziak, geroago eta sarkorragoak Jezabel laguntzen zuten emakumeen irrintziak, geroago eta ozenagoa *bendir* eta *darbuken* hotsa. Gogor behartu zituen betazalak, barru-barrutik zetozkion malkoak geratzekotan; hozka egin zuen beheko ezpainean, harik eta aurreko egunetako haize lehorrak idorturiko haragia urratu eta mina nabaritu zuen arte. Jezabelen begi zohardia gogoan, neska begi mintzatzailearen irria present, patu haren zergatiaz itauntzen zion behin eta berriro bere buruari, ezkontza eguneko irudi alaitxoak hilabete batzuk geroagoko une mingarriekin lehian.

Arrebaren ezteietako irudiok gogoan iltzaturik zituen Ahmedek: adatseko bilo beltzak biltzen zituen urrezko koroa buruan heldu zen Jezabel, familiako emakumeen irrintziak lagun. Urrezko

kate bat dingilizka, ezker-eskuma, koroako uso begi errubidunetik; belarri gingilak belarritako banak apaindurik, sama inguruan zeraman urrezko lepokoarekin ondo ematen zutenak. Inoiz baino eztiagoak iruditu zitzaizkion arrebaren begi beltz, handi, bizi, erne haiek, hain ederrak agertzen ziren etxeko emakumeek egindako kolore jokoen ondoan. Ezpainek, berez haragitsuak, urtsu eta koloretsuak ziruditen etxeko gela nagusia argitzen zuten kandela ugarien argi dardaratien eraginez.

Ezteietara gonbidaturikoek soinekoaren ederra zuten hizpide. Zetazko oihal gorria dilistantzeko hamaika puntu distiratsuk ederragotzen zuen. Jezabelen ibilera erritmikoak are politagoak egiten zituen soinekoaren argi jokoak, dilistantzeko puntuek kandelen argia hartu eta berriro zabaltzen baitzuten, emaztegaiaren ibilera pausatua are ageriago utziz. Oihal berberaz egindako kapa gorri bat zeraman, aurreko aldean makina bat eraztunek loturik; kate begietatik Fatimaren eskuak eskegirik, elkarren aurka txaloka, *naqarat*en erritmoa lagunduz. Ehun zuri

batek gerrikatzen zion gorputza, gerri liraina nabarmenduz.

Ezpainetako odol gaziak bere onera ekarri zuen Ahmed, arrebaren eskuetan emandako *henna*ren usaina aditzen hasia zen une berean.

Egunak berdin samarrak ziren gela ilun haietan metatzen ziren gizonentzat. Esnatu eta bananbanan hurreratzen ziren sukaldean zegoen iturri bakarrera, musua, garondoa eta besapeak freskatzera. Jarraian, lurrean piztutako suan berotzen zuten kanpotik ekarririko esnea, eta kafe hautsak nahasten zituzten, nor bere gelako txokora atzera itzultzeko. Kafesnea hartuta ostera murgiltzen ziren euren gogo bakartuetan, euren artekoa eskasa baitzen.

Batzuetan baten bat saiatzen zen isiltasun nekagarri hura jaioterriko istorioez edota kontakizunez orrazten. Beste batzuetan, Europara ezkero zeuzkaten asmoak agertzen zituzten besteen aurrean, xuxurlaka izan arren. Azkenean, hala ere, ohiko mutualdia nagusitzen zen, eta berriz etortzen ziren beren artera.

Abdurahman ez zen Ahmed animatzen saiatu. Bere ondoan jesartzen zen, bai ontzietako saltxitxak jateko bai kafesne berotu berria edateko bai eta lo egiteko ere; gero, baina, besteen artean bilatzen zuen hizketaldi iheslaria, espetxe moduko hartatik minutu batzuetarako aterako zituena.

Eta horrelaxe igarotzen ziren egunak eta gauak, etxea uzteko agindua heldu zen arte:

Jaikitzeko manatu zien Azizek, gelaz gela:

– Laster kamioi bat izango duzue atari aurrean. Prest egon behar duzue eta zaratarik egin gabe igo, hondartzaraino eramango zaituzte eta. Iritsitakoan zain egon beharko duzue, ezkutaturik eta isilik, patera heldu arte. Kamioira igo aurretik eman beharko didazue dirua!

Ostatuan bilduriko hogeita lau gizonak artegaturik mugitzen hasi ziren, pozaren eta belduriraren arteko lerro mehean nahasturik. Zikin zeuden, ostatuko ur hotza ez baitzen aski denontzat eta, gainera, aspaldian amaitu ziren Abdurahmanek eta Ahmedek ekarririko xaboiak. Bizarra egiteari ere aspaldian utzi zioten zer kendu bazeukatenek.

Gainean zeramatzaten jantziak zikin eta zimurturik zeuden: ez zituzten inoiz prakak eranzten eta alkandorak buru azpian ipintzen zituzten, burkoak bailiran. Eta berdin soinean zeramaten guztia.

Banan-banan irten ziren ostatutik, lotutako dirua Azizi emanda. Atartean gelditu ziren, eskaileraren ondoan makurturik, kaleko ilargitik babesturik. Berehala entzun zuten kale artean zetorren kamioiaren motorra. Ate zaharraren aurrean geratu eta gizon bat jaitsi zen: Jalal.

«Barrura, barrura!» oihukatu zien animaliak bailiran bultzaka zihoazen gizon lohitu haiei.

Jalalek kamioiaren atzealdeko oihala beheratu zuen, barruan isilik eta berak bi kolpe eman arte egon behar zutela jakinarazi eta gero. Kamioia berriro abiatu zen, Príncipe Alfonso auzoa apurka atzean utzita. Handik gutxira Benítez hondartzara iritsi ziren. Tentu handiz hurreratu zuen kamioia bide bazterrera, motorra gelditu eta ingurua aztertuta. Bidetik metro batzuetara olatuek eragindako hotsa entzun zitekeen, besterik ez. Orduan eskua kristalik gabeko leihotik atera eta bi kolpe jo zituen atzeko atoiaren bur-

din xaflan. Segidan, Jalalek egindako seinaleari erantzunez, kamioiaren atzealdeko oihala jaso eta arrapaladan irten ziren.

Jalal ez zen begira egon, azkeneko gizonak oinak lurrean ipini bezain laster eskuko galga kendu eta kamioiari bidean aurrera joaten utzi zion, argiak eta motorra piztu barik joan ere.

Hogeita lau gizonek lasterka zeharkatu zuten hondartza, uhaitzetan aterpetu arte, uzkurturik, arrokarekin bat eginda, handik hur zabaltzen zen itsasotik begiak urrundu ezinik. Ezin zuten sinetsi: ametsa egia bilakatzeko zorian zegoen! Gizon haien gogotik hondartzara heldu arteko egunak igaro ziren, arineketan, bihotzeko taupadekin lehian bezala.

Ahmedek atsekabez gogoratu zuen Ceutako ostatu txiki hartan emandako hilabetea, ostatuko leihotik begira desio zuen Europa ikusi, usaindu, sentiarazi zion hilabetea. Hilabete luzea itxaropenari deika, otoizka, lanabes zaharrak bezala pilaturik, lastamarrega bakanetan txandaka lo, patera prest zegoela jakinarazi zieten arte.

Hilabete luze bat, eta akaso zer edo zer gehiago ere, nork bere bidea eginda bisitariak

«Bienvenidos» hotz batez agurtzen zituen hiri ezezagun hartara heldu zirenetik. Hilabete luze bat, eta akaso zer edo zer gehiago ere, Ceutako kale estuetan noraezean, ezagutzen ez zuten salbatzailearen bila jira eta bira hasi zirenetik; harik eta desio zuten ahotsak laguntzeko hitzak xuxurlatu zizkien arte.

Hilabete luze bat, eta akaso zer edo zer gehiago ere, Ceutara zama berezia zeraman kamioi batek heldu behar zuela esan zieten arte. Hilabete... eta beste bi aste gehiago ere, zeruari beha, levante beldurgarria baretu eta itsasoratzeko baldintza egokiak noiz helduko zain. Harik eta, goizalde hartan, ilbeherak lagun, Jalalen kamioi zaharrak ostaturaino zihoan bide estua egin eta bertako atarian jaso zituen arte.

Bat-batean argi indartsu batek eten zituen Ahmeden pentsamenduak:

– Geldi hor! Polizia! Geldi!

Hogeita lau gizonek arrapataka alde egin zuten, hondartzan barrena zetozen poliziengandik ihes egin nahian. Izan ere, iheslari berriro ere esperantzabako haiek ez ziren levantea noiz baretuko zain izan ziren bakarrak, Ceutako poliziek

ondo baino hobeto baitzekiten barealdi hark aukera ederra izan behar zuela Gibraltarko itsasartea zeharkatu nahi zuten *atunentzat.*

Poliziak gizon guztiz gehienak harrapatu zituen. Aurpegiek etsipena erakusten zuten: ahul, zaurgarri, menpeko. Izututa zeuden, erreka jota. Dardarka... hotza eta beldurra kausa. Eskura izan zuten ametsa, ordu batzuetara, eta ezin.

Lurrean jesarrita, poliziaren ibilgailuen zain, praketako beheko aldea blai zeukatelarik, mindura handian murgildu ziren atxiloturiko iheslariok. Polizia batengana hurbildu zen haietariko bat:

– Ez dugu ezer txarrik egin. Gainera, ez dugu Espainian gelditzeko asmorik, Italiara joango gara eta. Hantxe baditut lehengusuak, automobila erosi dute eta jantzi eta diru piloa erabiltzen dute. Ondo biziko gara. Ezin etxera naiteke, etxeko azken gaztea naiz eta, beste guztiak aspaldian irten ziren Marokotik. Ez dugu ezer txarrik egin –eta atzera ere, hortzek dardara egiten ziotela, erregutu zion ondoan zuen polizia menderaezinari.

Abdurahman ere dardarka zegoen. Bere baitan bildurik, begirada lurreko harean ezkutatu nahi zuen, bere gauzak zeramatzan plastikozko poltsa txiki bati indarrez heltzen ziola. Bera zen poltsarik zeraman bakarra: gainerakoek soinean zeramatenarekin igaro nahi izan zuten itsasartea, oinetakoekin, alkandora, jaka eta prakekin. Bai eta Europan zain zeukaten lagunaren telefonoa idatzi zuten papertxoarekin ere.

– Zelan da posible? –esan zuen bere artean, bare, lagun eta itsasoratzeko ezin hobea zirudien itsasoari begiratzen zion bitartean–. Nola liteke? Isil-isilik geunden, hormigoizko harritzarron atzean ezkuturik...

«Zergatik atxilotzen gaituzue, ez dugu ezer txarrik egin, Italiara gindoazen eta...» errepikatzen zieten behin eta berriro ibilgailuetarantz bultzatzen zituzten poliziei. Marokoar gehienak herrenka zihoazen, oztopoka, minutu batzuetan aterpe eman zieten hormigoizko harritzarren ertzek hankak zauritu eta ebaki baitzizkieten.

Zaurian, gatza

Guztiz harrituta irudikatu nuen Mikel nire gutunaren aurrean, paper zurian idatziriko izenari begira. Eta zeharo minduta ere ikusi nuen, hainbeste urte eta gero berriz ate joka nentorkiola konturatzean, igarotako urte onak zein gure harremana hautsi zen uneko gertaera mingarriak atzera ere izekitzen zitzaizkiola.

Bikote ederra ei ginen, jendeak esana aintzat hartzera. Bikotearen arrakasta, hala eta guztiz ere, ez zen soilik harreman pertsonaletara mugatzen: sona handiko kasu bi irabazi zituen oso denbora laburrean urte bi lehenago zabalduriko abokatu-ikertzaileen bulegoak, Bilboko legelari eta ikerketa munduan oso ospetsu bilakaraziz.

Zoriontsua zen Mikel: maite zuen emakumearekin bizitzen jarri berria, eta ikasi bitartean amesturiko arrakasta lortua, lanean hasi eta bi urtera. Zer gehiago eska zezakeen?

Ni, aldiz, ez nengoen Mikel bezain ziur. Egia zen bere ondoan menta ezagutzen niharduena; baina, dudarik gabe, Mikelek itzali egiten nin-

duen, giroak gizonaren alde egiten zuelako behin eta berriro, emakumea bigarren mailan utzita. Ez nuen begi onez ikusi egunkariek bi kasu horien amaierari emandako trataera, Mikel zelako beti lorpenen protagonista nagusia, bakarra ez zenean. Ez nuen, eta ez dut, bere lana eta trebezia ukatu nahi; baina, argi nuen neuk ere arlo hartan arrakastaren loria ezagutuko banuen, Mikelengandik urrun izan beharko zuena.

Ez zituen nire kezkak ulertu, berarentzat elkarlanean zetzalako arrakastaren zergatikoa, eta ezin izan zuen nire ihesa eraman. Mikelentzat haustura ekarri zuen erabaki hark, ez lehenengo unetik bertatik, baina bai egunen joanetorrian. Egunero ekiten zion, ekin eta ekin. Gainera, ideia zoro bat begitandu zitzaion: huts egiten banuen, berarekin itzuliko nintzen. Eta asmo harekin porrotera bultzatzen ahalegintzea ebatzi zuen, nire kontra hitz egiten hasi zen abokatu giroetan, nire ustezko ahuleziak azpimarratu eta nire hutsak lau haizetara zabalduz. Nire paperak eta agiriak galtzen hasi ziren, telefono mezuak *ahazten,* edota nire izenean bulegora iristen ziren faxak *nahigabe* paperontziratzen.

Ez zitzaidan oharkabean pasatu Mikelen jokabidea. Bion lagun batzuek, haren portaera ulertzera heldu gabe, jakinaren gainean ipini ninduten eta, amore ematetik urrun, aurre egin nion egoskorkeriari, elkarlanean jardun genuen garaian lorturiko bezeroak neure aldera ekartzeko. Gutxika-gutxika, eroapenez, Mikelek zapaltzen zuen lur finkoa urratuz joan nintzen, harik eta oinarririk gabe utzi nuen arte.

Noski, egoera hark gure harremanak ere usteldu zituen, inoiz habia bero eta maitagarriak izan ziren txoko guztiak borroka leku bilakatu baitzituen Mikelen jokabide ulergaitzak. Etxea utzi nuen bulegoa laga eta hilabete batera, Mikelentzat edozein aukera baitzen ona etengabeko liskar sutu berri hartan. Hasieran behintzat, ez nuen pentsatu erabaki garratz hark luzerako izan beharko zuenik, amore eman eta nire independentzia nahia ulertuko zuelakoan nengoen eta.

Ez zen horrela jazo. Mikelek ez zidan etxera itzultzeko aukerarik eman: alde egin nuen egun berean aldatu zuen kanpoko sarraila, nire pauso guztiak atzeraezinak egin nahi zituelako, behin

betiko errenditzea erabakiko nuen arte. Atzerabiderik gabeko estrategia jorratzen ari zen. Erabakiek helburu bakarra zuten: neu, etsipenaren etsipenaz, etxera eta bulegora itzularaztea, buru makur, bere nagusitasuna onartuta.

Eta une hartan, hiru urte geroago, hantxe zuen, begien aurrean, nire gutuna. Ez zegoen helbiderik, nahiz eta postetxearen zigiluak Madrildik zetorrela eta egun bat lehenago postaratua zela adierazten zuen. Orri bakarra zekarren, txikia, tolestua; eta mezu labur bakar bat: «Kaixo, Mikel: Zurekin hitz egin behar dut. Bihar helduko naiz Bilbora. Deituko dizut. Laster arte. Maixabel».

Papera amorruz zimurtzen irudikatu nuen Mikel. Amorraturik eta... minduta egon behar zuen, ziur naiz.

Bilbo, 1999ko iraila

Beldur nintzen, ez bainuen uste Mikelek nire deiari erantzungo zionik; eta beldur nintzen, erantzutekotan ez nekielako zelan jokatu behar nuen. Horregatik, lotutako lekuan agertu zenean, sentsazio berezia izan nuen, pozaren eta izuaren artekoa. Poza gauzak nik prestatu bezala irteten ari zirelako; izua, banekielako argi ibili beharko nuela helburua lortzeko.

Mikelek atetik bertatik ikusi ninduen: mahai altu eta biribil baten bueltan jarria, ezagutzen ez zuen gizon baten ondoan, belarri ertzera mintzatzen. Atean geratu zen, aurrera egin ez egin erabakitzen, nire lagunari begira, artez. Arin elkartzen dira sentipenak halako uneetan, errealitateak zeuk diseinaturiko bidetik urruntzen zaituela ikustean, gustuko ez duzun edo, akaso, gorroto duzun eremura eramaten zaituenean. Neuk ere, Mikelen sentsazioekin bat egin nahian, Saidi begiratu nion. Sendo antzeman nuen, lirain, beltzaran eta gazte, ile kizkurra, kopeta soiltzen hasia. Bibote handi batek itzaltzen zion goiko ez-

paina, bai eta belarritik belarrira zabaltzen zitzaion etengabeko irribarrea ere. Gero, begiak itzuli nituen Mikelenganantz, eta kopeta zimur hartan nahasten ziren sentimenduak jorratzen ahalegindu nintzen, banaka, hala nola baserritarrak artoa, asmo txar eta pozoitsuak baztertu guran. Mamu zaharrak garbitu gura izan nituen lehenengoz, ezusteko egoera hark ekarririko mamu zaharrak, tabernako zigarro keek antzeratzen zituzten irudien artean barre-algaraz agertzen zitzaizkion mamu ezagunak, aspaldian nire jokabideak beste gizon batekin zerikusirik ote zuen itaundu eta aurpegiratzera eraman zuten mamu traidore berberak.

Bere keinuetan irakurtzen saiatu nintzen, barne berbaldi sakonaren erakusgarri: neuk sufriaraziko minak, batetik, errukirik gabe jotzeko eskatzen zion, joan nintzenetik pairaturiko une mingots guztien ordaina eskatzeko: begia begi ordain, hortza hortz. Bazegoen, bestetik, geroan sinesteko agintzen zionik ere: urte guzti haietan ni ahaztu ezinak bihotzaren gurariei men egin behar ziola esaten zion, behin eta berriro, ahapeka bazen ere.

Mikelek ezin zuen jazotakoa ahaztu. Urteak joan urteak etorri, eguneroko lehia bilakatu zen gertatutakoa azaltzeko esfortzua. Hasierako amorruak, errua zalantzarik gabe niri aurpegiratzea zekarrenak, zein baino zein ibili behar izan zuen ondorengo urteetan, kulpaduna behatzen zuen hatz akusatzailea norberaren aurka bihurtzen hastearekin batera. Mikelek gogor jokatu zuen, dena edo bat ere ez irabaztera, ezbairik gabe nagusituko zelakoan; belarri bat emango zukeen orduan, aldiz, ni bere ondora itzultzeagatik.

Ustekabea erakutsi zuen otoz otoan nire eskua ikusi zuenean, jarrita geunden mahaira hurreratzeko keinuak egiten zizkiola. Lipar bateko pentsamendu guztiak barnean gordeta, aurrera jo zuen, behinola hainbeste pasio sentiarazi zion eskuak erakusten zion jesarlekura zuzen. Heldu baino lehentsuago zutundu nintzen, irribarretsu, artegaturik, zer esan eta zer egin jakin barik, aspaldiko zorrak bat batean kitatu behar dituzula jakiteak sortzen duen egonezinak baldar bihurturik, aurreko eguneko deiari erantzun izana eskerturik.

– Mikel... –esan nion, hitzak ondoz ondo josteko arazoak nituela ohartuta.

Bihotza dardarka neukala konturatu nintzen. Ordu arteko lasaitasuna desagerturik, ez nekien nola jarraitu. Non zeuden une hartarako prestaturiko hitzok? Non hotz-hotzean pentsatutako mugimenduak? Segundo batzuk irabazi nahi izan nituen, bihotza lasaitu guran, zintzo jokatze aldera:

– A! hauxe... Mikel... Said da... nire lagun bat.

– Kaixo, urte askotarako –Mikelen begi ezkutuek, begi salatzaileek, biziro azaltzen zuten, ezpainek besterik bazioten ere, bihotzean zeraman su kiskalgarria.

Niretzat ere latza suertatzen ari zen egoera hura: taupada bizian zihoakidan bihotza, halako batean lasaitzeko; buruaren aginduei muzin egiten nion, mihi dantzaria aurreko minutuetan egindako gogoetaren arabera lotzeko. Eztarria iharturik, hitzek mina ematen zidaten ahots kordak laztantzerakoan, aurreko urteetan eteniko komunikazioa atzera biziberritu nahi izateak beste erritmo bat eskatuko balu bezala. Gorro bat sentitu nuen gora eta behera, hitzok ito

guran; eztarria marrantatu zitzaidan, kontzientzia lardasten den era berean, hitzek egiten duten ohiko bidea zeharo trabatuz. Ur trago bat hartu eta urruma egin nuen, traba egiten zidan gorroa urtu nahian, kontzientzia lainotzen zion erlastura garbitzeak, udazkeneko egunsentietan eguna ezkutatu gura duen behe lainoak bezala, denbora luzeago behar zuela jakinda.

Orduan, bizi nituen une garratzez oharturik, Saidek egin zuen hitz:

– Iruditzen bazaizue barruan eskatu dugun mahaira joango gara. Ez dakit zuek, baina nik behintzat gurgurka ditut tripak, hemen oso berandu afaltzen baituzue. Gure herrian honezkero kafe batean egongo ginateke, afarikoak ondo egiten. Marokoarra naiz, Fezkoa.

Saidek eskainiriko aulkian jesarri zen, atzera begira, ni noiz joango zain. Aho bete hortz zegoen. Nor zen Said izeneko hura galdetzen zuen begirada sarkor hark. Nirekin hitz egiteko etorri, nire ezpainetatik azalpen bat edo entzutera, eta, inondik inora espero ez zuen hirugarren bat agertua zelako bion artean, aspaldiko zauria ixteko usteak erdia ustel bihurtu!

Mikel sano armaturik zetorren, ni umiliatzera, mendekua hartzera, eginak eta esanak kitatzera. Bezperatik, «betiko lekuan» biltzeko igorri nion mezua jaso zuenetik, ibili zen otoz otoko agertze hark sorrarazitako min egarria apaldu nahian. Mindu nahi ninduen, neurrian baina. Urtetan espero zuen unea ate joka zuen, eskean nentorkion. Esatekoak hitzetik hortzera etorriko zirelakoan heldu zen tabernara, baina, niri bezala, behar zen unean mutu egin zitzaizkion hitzok, ezpainen atarian; adorea kikilduta, begiak uzkur, mahai gainean zegoen jaki zerrendan bilatu zuen aterpe.

Haiekin elkarturik, Saiden ondoan kokatu nintzen, bi gizonen artean antzematen zen inkomunikazioa hausteko kapaz ez. Mikelek egin legez, aterpe bilatu nuen, egonezina sortzen zidan egoerari segundo batzuk irabazi guran. Horman eskegirik zegoen argazkiari erreparatu nion: hiri paisaje bat zen, paisaje elurtua. Lagun bakar batzuk agertzen ziren plaza elurrez estalian. Nabaria zen baten batek bidea garbitua zuela, oinezkoen ibilera labaingarriak saihesteko. Zuhaitzek, udaberriko jantzi berde ederrak galduta, ikuspe-

gi polita osatzen zuten, zuhaitz adarren gainean, oreka harrigarrian, baturiko elur malutek zurituri k. Kale luze bat agertzen zen argazkiaren ezkerraldean, hutsik, gurdiren batek utziriko aztarnak agerian.

Eta kale luze hark eman zidan ihes egiteko bidea, egoera hartan ere hotza sentitzen hasia nintzelako, argazkiko elurra hiruron artean nagusitzen ari zen giro hotzaren iturria balitz bezala, arbolen adar zurituetako elurrak, etxeen teilatuen gainekoak, plazako kiosko hexagonalaren eskaileretan bildurikoak, azpian harrapatu eta izoztuko gintuelako beldur.

– Barakaldoko Herriko Plaza da! –adierazi nuen bat-batean, ondoan nituen bi gizonak ustekabean harrapaturik–. Ezin dut sinetsi. Hori amaren berbetan ezagutu dudan plaza zaharra da, lehengo kiosko zaharra. Eta elurturik! Ikusi duzu? Gure herria da. Begiratu! Etxeon azpikoetan kutxaren bulegoak daude egun –hitz eta pitz ari nintzen, argazkiko gizonak bezala, bidea trabatzen zuen guztia garbitu guran, erratza eta palaz hark, hitz jarioaz nik–. Ikusi, hemen, beheko aldean, loteriako kioskoa, orain egunkarieta-

koa dagoen lekuan. Eta zuhaitzak! Ikusi dituzu zuhaitzak? Baina, noiz ikusi duzu horrelako elurterik gure herrian?

Said, burua argi, elur gainean markaturiko ildotik joan zen, nire joko beroaz ohartuta.

– Argazki ederra da. Nik gutxitan ikusten dut elurra, ez baita oso gauza normala ni bizi naizen aldean, suposatuko duzuenez. Han ere harrigarriak izaten dira horrelako elurteak, oso noizbehinkakoak izaten direlako. Bestela, elurra normaltasunez ikusteko, Atlasera joan behar izaten da. Han bai, han ederrak izaten dira elurtzak. Eta ederragoak mendien lur koloreekin eta mendien magalean jaio eta denboran iraun duten etxe buztinez egindakoekin sortzen duten kontrastearen altzoan.

Azkenean, Mikel ere elur hotza zapaltzen hasi zen: jakien zerrenda mahai gainean utzi, eskuak elkarren aurka igurtzi eta putz egin zuen, ahoan gordeta zuen zigarro kea apurka irteten utziz:

– Oso irudi zaharra da, 50eko hamarkadakoa. Guk, Maixabel eta biok –zehaztu zituen bere hitzak, nire begiekin lehenengo aldiz topo eginez–, ez dugu plaza hori ezagutu. Hantxe jazo zen

gure lehen erlazioa. Etxalde haren azpian hartzen genuen autobusa, Bilbora etortzeko.

Isildu egin zen. Eta bazirudienean giroa ostera hoztu behar zuela, zerbitzaria itzuli zen. Mikel hari beha gelditu zen: nola bide elurtuetan gatza botatzen den, horrela atzeman zuen zerbitzaria, ogi puskak, eskaturiko ardoa eta entsaladarako olio, ozpin eta gatza mahaian antolatzen ari zela.

– Marokoko lagun bat da Said. Kazetaria, hango *Libération* egunkarian idazten du. Madrilen ezagutu nuen, Saharako herriari elkartasuna erakusteko antolatu ziren hitzaldi batzuetan. Marokon arazo hori zelan bizi duten kontatzera etorri zen; izan ere, gutxi batzuk izan arren, han ere badira Sahara herriaren aldekoak. Oso egoera gogorrean bizi dira, jakina, Marokoko erregimenak ez baititu begi onez ikusten. Egia esateko, ia-ia klandestinitatean lan egin behar du elkartasuna agertu nahi duenak.

Madrilen egiten nuen lanaren nondik norakoak kontatu nizkion, ahalik bezain zehatzen, egoerak ematen zuen bezain xehe. Zabaldu nizkion hiru urtetako isilunea ezkutatzen zuten giltzarrapoak, behinola izan genuen konfiantza berare-

kin. Legelari bulego batean hasi nintzela azaldu nion, lehenengoz eta behin, kanpotik etorriko langileen arazoez arduratuta: paperik gabekoak, bertan egoteko baimenak berritu behar zituztenak, lanean jardun eta nagusiek, egoerak ematen zien aukeraz baliaturik, zanpatuak...

Eta argi erakutsi nion behar hartan buru-belarri sartuta nengoela, 1985ean onartu zen Atzerritarren Lege anakroniko eta eramanezinaren aurka engaiaturik, beharraren eta engaiamenduaren arteko marra ikusezin bihurtu arte. Legearen aurka jardun nuen, gero eta sutsuago, berari leporatzen bainion etorkinen egoera negargarria:

– Legez kanpokoak sortzeko balio du! Bisatu bat eskatuko diete atzerritarrei, Europako Batasunekoei izan ezik, noski, Espainiara joan nahi badute. Bisatua, ematen badiete, diru baliabide eta Espainian lan egiteko egiune baten jabe direla frogatu ostean lortuko dute; baina, zelan erdietsiko dute lan hori euren herritik irten gabe? Horregatik etorri behar izaten dute, han aurkitzen ez duten lana Europan topatuko dutelako-

an! Alferrik, legez kanpoko egoera baino ez zaie gelditzen.

Etengabe hitz egin nion etorkinen egoeraz, amorruz, baina inolako pena edo erruki kutsurik gabe.

– Batez besteko bizi itxaropena ez da 50 urtera heltzen; hiesak jotako lagunen %90 Afrikakoa da, hamazortzi milioi, eta urtetik urtera lau milioi gehitu behar zaio kopuru izugarri horri. Afrikan gatazka politikoak nonahi sortzen dira; Etiopia eta Eritrearen arteko gerra; Kongoko eta Ruandako guda zibilak; Sudanen milaka gizonemakume hiltzera eramaten duten musulman eta kristauen arteko liskarrak; gosea eta izurriteak, umeetan izugarrizko ondorioak sortzen dituztenak; Ginea-Bissauko gudak; Aljeriako fundamentalistek sorturiko egoera; Nairobi eta Dar es Salamgo terrorismo islamikoa... Horixe da Afrika. Harritu al zaitu makina bat gizon eta emakumek aterpe eskatzeak gure «gizarte zibilizatu» honetan? Munduan dauden desorekak mantentzen diren bitartean, Afrika gatazkaz josita dagoen artean, orain dela hirurogei edo berrogeita hamar urte Europa zegoen bezala, migra-

tzeko nahia eta beharra hor egongo da, eta ez ditu errespetatuko norberaren zokoko logika eta beharrak, beste logika batzuei eta beste behar batzuei lotuta baitago.

Haserre mintzo nintzaion, bihotzez. Desagertua zegoen hasierako minutuetako hotza. Ez nuen zalantzarako lekurik utzi: bistan zegoen gaiak gatibatzen ninduena eta barruan neramana. Halako batean, isildu eta Said eta Mikeli so egin nien. Bero nintzen.

Saidek eskua heldu zidan, maitekiro. Mugimendu hura ez zen oharkabean pasa Mikelentzat: begiak Said eta bion atzamarren artean lotu zituen, elkarri emandako fereka leunak barruan sentitu arte. Niniak urtzen zitzaizkiola nabaritu nuen, atzamar bero horiek sentiaraziko igurtziak mina eman baitzion.

Saidek, nire eskua askatu barik, Mikeli so egin zion:

– Txundituta, ezta? Horrelakoxea da Maixabel: giza sufrimenduak kate motzean lotu du eta orain ezin da besteen minetik aldendu. Borroka batean engaiaturik jarduten du, gau eta egun, osasuna ere arriskuan ipini arte. Dena den,

Mikel, ez zaitugu ekarri afrikarren sufrimenduaz filosofatzeko, azaldu nahi dizugun arazoa hari loturik dagoen arren.

»Uztail aldean, Ceutako Benítez hondartzan geunden, paseoan. Halako batean, poliziak heldu eta arroka batzuen atzealdean gorderik zeuden afrikarrei gelditzeko agindua eman zien. Afrikarrak patera baten zain zeuden, Espainiaraedo eramango zituen txalupari begira. Orduan amaitu zitzaien abentura, beste askotan gertatu bezala: gizonak ihesean irten ziren, polizien eskuetatik alde egin nahian. Batzuek uretan bilatu zuten ihesbidea, besteek hondartzaren luze-zabalean. Hala ere, denak harrapatu zituen poliziak, gure begien aurrean. Eta hantxe erabili zituen, kolpeka, bultzaka, Espainiako Poliziak etorkinekin erabili izan ohi duen gorroto ulergaitz hark bultzatuta.

»Minutu batzuen buruan amaiturik zegoen aurreko orduetan josiriko polizia ekintza. Gizonak polizien autoetan sarturik, belarriak apal, gorrotozko begiradak han, begi lausoak hemen; jantziak blai, hotzen karraska nagusi, negar zotina, sudur hotsak. Polizia nagusiak tentuz araka-

tu zituen arrokak eta hondartza, begiradak hel zezakeen guztia hartuta. Joan egin ziren.

»Isilik gelditu ginen, ondoko bidetik zihoazen autoei begira. Bat-batean, ur hotsa nabaritu genuen: poliziak atzeman ez zuen gizagaixo bat ikusi genuen itsas ertzean, uretan etzanda, olatuen morroi. Hurreratu eta mutil bat aurkitu genuen, hamazazpi urteko mutiko bat!

Saiden eskua askatu eta begietara eraman nituen esku ahurrak:

– Hamazazpi urte! Badakizu zer den hori? Non geunden gu adin horrekin? Eta, hara, mutiko bat gizon eginda, bere bizitza arriskuan ipintzeko prest. Zorigaitza da: gosea ala lan bat lortu eta bizi ahal izateko itxaropena! Horra bi horien arteko marra garbia.

Saidek lasaitzeko eskatu zidan. Gero, Mikeli begira gelditu zen, erantzun baten zain, giza keinu bat bilatzen. Mikel, aldiz, izukaitz zegoen, lasai. Egoera desatsegina iruditzen zitzaion bizitzen ari zena: niri so, nire mugimendu guztiak barneratzen, bihotzean mingarri, urratzaile sentitzen. Hutsaren hurrengoa begitandu zitzaion Saidek eta biok esandako guztia. «Niri bost!»

pentsatu behar izan zuen Said mintzo zela, eskuen artean nirea hartzen zuela, gure atzamarrak nahastu egiten zirelarik. «Niri bost!» otu behar izan zitzaion Saidek gozo hitz egin zidan bakoitzean, nire begi lausoetan harenak urtu zirenetan.

– Ez dakit zertan nabilen hemen –esan zuen, aulkitik jaikitzeko imintzioa egiten zuela–. Adarra jotzen zabiltza? Hiru urte, Maixabel! Hiru urte niregandik urrun, zure berririk izan gabe; hiru urte itxaroten; hiru urte sufritzen!

Isildu egin zen: ingurukoei so egin eta ondoko mahaietan zeudenen keinu galdetzaileei erreparatuta, isiltzea erabaki zuen. Aulkia atzera eraman eta zutundu zen: «Hiru urte, Maixabel». Joan egin zen.

Mojaditos

Ahmed komunetik irten zen, arropaz aldatuta, Saidek utziriko lo jantzietan bero. Gu biok geunden aldera hurreratu zen, isilik; kopeta gora, hala ere. Hitz jario etengabean babestu zuen Saidek, une hartako artegatasun nabaria lagunarteko bilakatu nahian, herio gogorraren hortzetatik libratu izana, bidaian atzean gelditzen den hiri ez desiratua balitz bezala, oroimenaren mapa zimurtu berrian ilundurik.

Abegitsu izan nahia nahastu egiten zen jakinminarekin, hondartzan ezagutu berritan kontatutakoetan sakondu gurarekin. Ahmed bere arrebaz mintzatu zitzaigun olatuen artetik atera eta berehala, egoeraren zergatiaz azalpenak ematera behartuta sentiturik-edo. Mugarik gabeko datu jasa izan zen: izenak, datak, lekuak, usteak...

Jezabelez eta Hamidez hitz egin zigun. Ahmeden arreba zen Jezabel, lau urte lehenago Hamidekin ezkondua. Espainian zegoen, eta haren bila joatea zen bere helburu bakarra.

Hamidek Europarekin egiten zuen amets, eta Jezabel amets horietan murgilarazi zuen, herrian zeukaten egoera aski ez zela bera bezalako printzesa batentzat, gehiago merezi zuela eta ezin ziola merezi zuen guztia sorterrian eskaini.

Jezabel gustura bizi omen zen herrian, behar handirik gabe. Gizonak, haatik, jakin zuen etxekoak uztera limurtzen, bere ametsetan gatibu egiten. Ezagutzen ez zuen herriaz mintzatzen hasi zen Jezabel: hango kulturaz, hango askatasunaz, hango aberastasunaz, hango... Urtetan nahikoa eta sobran izan zuena, eskas eta bakan begitandu zitzaion, senarraren hitzetan ezagutzen ari zen munduko bitxien aldean.

Ezkondu eta urte batera, ama izateko hiru hilabete falta zituela, Espainiara zihoazela jakinarazi zuten etxean: umeak Espainian jaio behar zuen, horrela ezingo zuten handik kanporatu, umea espainiarra izango zen eta. Ceutaz hitz egiten hasi ziren, ele eta ele, Ceuta Europan sartzeko atea zela, haraino helduta inon baino errazago egingo zitzaiela paperak lortzea...

Auto zahar batean, errepide txarretan barrena, hiri desiraturaino heldu ziren. Ceuta ingura-

tzen duten hesiak errepidearen albo bietan, lorturik atzeman zuten ametsa. Zaintzaile gutxi ibiltzen den aldea bilatu zuten hesia igarotzeko. Hamid emaztea bultzatzen hasi zen, behetik: lodi zegoen, barruan zeraman umea nahikoa aurreraturik. Izugarri kostatzen zitzaion altxatzea, baina, azkenean, lortu egin zuen. Jezabel alanbradaren goi alderaino igota, eta senarra heltzeko zorian zegoela, laprast egin eta erori zen Jezabel.

Hiru metrotik behera jausi zen, lurrean jo eta konortea galdu. Hamid alboan zegoela, Guardia Zibila iritsi zen. Oso ongi jokatu zuten eurekin, batez ere Jezabelekin: hiriko ospitalera eraman zuten. Hamidek, aldiz, hiru egun eman zituen espetxean. Egun batzuk geroago Calamocarrora bidali zituzten, Ceutako kanpamendu batera, non etorkinak egoera deitoragarrian pilatzen diren.

Mesfidantzaz so egin zigun Ahmedek, hondartzan hitz egiteko grina etxeko dutxak apaldu balu bezala. Saidi eta bioi begira, burua xukade-

ran erdi ezkuturik, pentsakor zirudien, lehenago neurtu ez zituen ondorioak kalkulatzen.

– Lasai, Ahmed –urratu nuen isiltasuna–, ez duzu egindako galderei zertan erantzun; baina, bestela, ezingo dizugu lagundu. Nik Madrilen lan egiten dut, legelaria naiz, eta zurea bezalako auzi asko eraman dut. Said kazetaria da, Marokoko *Libération* egunkarian, Ceuta eta Melillako albisteen arduraduna. Gurekin fidatzen bazara lagundu ahal izango dizugu; osterantzean...

Mahai gainean zegoen ura eskuratu eta trago bat hartu zuen, emeki, zurrupada bakoitzarekin eztarria garbitu nahi balu bezala. Gero, altxatu eta leihora hurbildu zen: errezelak estutu zituen aurpegiaren aurka, begietan sentitzen zuen sua hil nahi zuten malkoak lehortzeko. Ceutako argiei beha gelditu zen, polita zen-eta gaueko giropean sortzen zen argi jokoa.

Atzetik hurreratu nintzaion, gorputzaren kontra estutu, gizon izan nahi zuen mutikoa altzoan babestuz. Nire esku fina sentitu zuen, erkainak ile kizkurrean jolasten, lagun, bero. Libro utzi zituen malkoak, erortzen, masailetan zabaltzen, nire atorra blaitzen. Adats garbitu berriaren

umeltasuna nabaritu nuen azalean, bularretan, jantziaren oihal fina zeharkatzen; mutikoaren sudur hotsak aditu nituen, pentsatzea oztopatzen zioten negar zotinak.

Gero, niregandik urrundu eta orri tolestu bat atera zuen mahai gainean utziriko zorrotik. Jezabelek bidalitako gutuna zen eta bertan Calamocarron emandako lehen egunez ari zitzaion nebari. Pasarte bat hautatu eta irakurtzeari ekin zion:

– *«Lehenengo egunean aulki batean jarririk lo egin dut, kanpin dendetan lekurik ez zegoelako; bigarrenean zuhaitz baten kontra bildurik; eta hirugarrenean, azkenean, leku bat utzi digute barrakoi batean. Ez dugu ezer, ezta lo egiteko lastaira triste bat ere. Hirugarren gauean, haurdun ikusi eta lastaira bat utzi zidan gizon batek; biharamunean, aldiz, eskatu. Ezin dugu dirua gastatu, Algecirasera igarotzeko behar dugu eta. Hain justu! Beraz, lurrean lo egin beharko dugu, besterik ezean».*

Ahots dardarakorrez irakurri zigun, eta gero eta ulergaitzagoa zen ahoskeraz segitu zuen hizketan, hurrengo egunetan gertatutakoak adiera-

ziz, Hamidek berak espetxean adierazitakoari jarraikiz.

– Hiru hilabete eman zuten kanpamendu hartan, egunetik egunera nazkatuago, egunetik egunera ahulago, harik eta Jezabel erditze minak sentitzen hasi zen arte. Bizkor eraman zuten ospitalera eta bi orduren bueltan erditua zen, sekula ezagutu ez dudan neska batez. Jezabelek bi egun igaro zituen ospitalean; Hamid, bitartean, abaguneak ekarritako nolabaiteko askatasunaz baliaturik, Ceutan barrena ibili zen, handik aterako zituen kontaktuaren bila.

»Bigarren egunaren iluntzean artegaturik heldu zen Hamid Jezabelen ondora, arin eta isilik ibili behar zuten, gau hartan bertan Algecirasera eramango zituen patera irtengo zelako, Sparte lurmuturretik. Jezabelek otoi egin zion senarrari, oso ahul zegoela, umea jaioberria zela eta ezin zirela handik mugitu... Pobrearen indarra, Hamidek Ceutatik irteteko dirua emana baitzuen.

»Jezabelek ezin zuen gizonaren tema sinetsi, hain makal, hain indarge sentitzen zen. Umea, txiki, ñimiño, defentsarik gabekoa, babestu nahi izan zuen herio bidea iruditu zitzaion ihesaldian.

Ezezka aritu zitzaion Hamidi behin eta berriz; baiezka ihardetsi hark, Jezabelen tonu apala poliki zanpatuz. Halako batean, ohera hurreratu eta besotik oratu zion, handik jaikitzeko aginduz. Jarraian, haren erresistentzia ikusita, umea hartu, oihal batean bildu eta Jezabelengana itzuli zen, berarekin edo bera gabe alde egingo zutela adierazteko.

»Jezabelek besoak luzatu zituen umea hartzeko, baina Hamidek ez zion aukerarik eman. Zoratuta zirudien, begiak gorri-gorri zeuzkan eta gero eta arinago hartzen zuen arnasa. Gure arrebak lasaitzeko eskatu zion, albait lasterren jantzi eta harekin joango zela aginduta. Hamidek ohe gainean laga zuen umea. Orduan Jezabelengana biratu zen, atzetik hurbildu eta barkatzeko erregutu zion, erietxetik joan behar zutela uler zezan eta gauzak horrela egin behar zirela onar zezan, bestela Calamocarrora itzuli eta handik Marokora bidaliko zituztelakoan.

»Jezabelek beso artean hartu zuen Hamid eta sutsu hasi zen musukatzen, baietz eta baietz, atzetik joango zitzaiola, herritik irten zirenean agindu legetxe. Umeari begiratu eta gauak hotza

izan behar zuela otu zitzaion. Orduan, bere ohean zegoen burusia hartu eta bere poltsan sartu zuen, indarrean.

»Ordu erdi geroago ospitalea laga zuten, inor ohartu barik. Behean gizon bat zuten zain, auto batean. Gizonak azkar ibiltzeko agindu zien, berandu zen eta. Gidaria, umea ikusi eta keinuka hasi zen, hura gustatzen ez zitzaiola ulertzera emanez: bestelakoa zela hitzarmena, umearena isilean gorde zuela Hamidek eta horrek gauzak zailtzen zituela, harrapatzekotan askoz gogorragoa izango zelako zigorra.

»Hamidek beste billete sorta bat atera eta luzatu zion, gidaria momentuan bertan isilarazi eta konforme utziz. Gizona, dirua jesarlekuaren ezkerraldean zegoen zorro batean gorde eta bidearri lotu zitzaion, umea zela-eta ez ikusiarena eginez. Hondartzara heldu arteko gorabeherak ez ditut ezagutzen, Hamidek berak, gertaera hauek kontatu zizkidanean, beren-beregi isildu zituelako.

Ahmedek beste baso bete ur eskatu zion Saidi, ondoren kontatu behar zituenek-eta indarberritze bat eskatuko baliote bezala. Triste zego-

en, ahotsa apalduz zihoakiola ohartzen zen, jazoera hura aitaren batean amaitu nahiak eztarria lehortzen ziola sentitzen zuen. Saidek ontzia ekarri eta zurrust egiteko esan zion. Eztarria garbitu, jaiki eta ibilka hasi zen, gertaera lazgarri horiek pausoz pauso arindu guran.

– Gaueko ordu biak izango ziren patera Ceutatik abiatu zenean. Jezabel irrikan zegoen, Espainiara heldu nahi zuen, senar eta ume jaio berriarekin aro berriari ekiteko: lana bilatu, etxea erosi, umea hazi...

»Milia erdi edo faltako zuten euren gogo bizia egia bilakatzeko. Linea de la Concepciónen aurrean zegoen txalupa, eskura zituzten Toneleroko kaiko argiak, Guardia Zibilaren Itsas Zerbitzuak gelditzeko agindu zienean: «Geldi hor! Egon, egon!», oihukatu zioten guardiek legez kanpoko txaluparen jabeari, pateraren kontrola ziurtatzeko sokak jaurtikiz.

»Denak isilik, banaka hasi ziren Guardia Zibilaren ontziaren bizkarrera igotzen, polizien begi erneen aurretik. Kostazainek, modu txarrean, poparen ezker-eskuman ipini zituzten iheslariak, *mojaditos* zeritzetenak. Bi emakume ziren hama-

bosten artean. Eta hantxe zegoen Jezabel, umea altzoan zeramala.

»Bera eta umea Algecirasko Punta Europa erietxean sartu zituzten. Medikuek hainbat azterketa egin zizkieten, egindako astakeriak kalterik ekarri zien ikusteko. Ginekologoen eta pediatren berbetan, ondo zeuden ama-alaba; hala ere, egun batzuk pasatu behar zituzten ospitalean, behar legez osatu arte.

»Hiru egun geroago Hamid ekarri zuten Marokora. Bera bakarrik. Espetxean dago, herritik baimenik gabe irteteagatik. Jezabel etorkinentzako etxe batean gelditu zen, alabarekin, berriro herriratzeko aginduaren zain. Horixe izan zen hari buruz jakin genuen azkena.

Ahmed ura edatera joan zen. Leihoaren ondoan gelditu nintzen, zirkinik egin gabe, begiak betazal, kopeta ilun. Saidi behatu nion, begiradaz Ahmedek kontaturikoaren zergatikoaz itaunduz. Ulertu nahi eta ezin, azalpen bat aurkitu gura nion erokeria hari eta kapaz ez, Saidengan bilatu nuen erantzunik. Hark, bere barnean bildurik, nire begiradari ihes egiten zion, erantzunik ez baitzuen erruki gabe egiten nizkion itaun isil-

ozenentzat. Eta gelan gelditu ginen hirurok, isi-
lean.

Itsaso Bareak legez

Halako arnas estutze bat sentitu nuen bularrean, diafragmatik gora zetorkidan aireak oztopo bat aurkitu eta bola bat egin balit bezala, eztarriaren parean. Jarraitu nuen mailak igotzen, lehen baino pausatuago hala ere. Bigarren solairura helduta geldiune bat egitea erabaki nuen, paparraren kontra izutu arte kolpeka nabaritzen nituen bihotz taupadak entzuteko. Ezkerreko eskua ipini nuen bihotzaren parean; eskuma, aldiz, horman bermatu behar izan nuen, hankak indarge sentitzen hasi eta, egoera hartan, neure gorputzari eusteko gai izango ez nintzela pentsatzen ere hasia nintzelako.

Bigarren solairuan geldirik, paretaren aurka jarririk, begiak itxi eta indarrak barruan bilatzeari ekin nion, adorea behar nuen, erabakia hartu eta gehiago atzeratu barik aurrera eramateko. Ezin nuen berriro huts egin. Ezin nuen eta ez nuen nahi. Ez nintzen Madrildik Bilbora joan, azalpenik gabeko izu lelo batek menderatu eta bertan molokot eginda itzultzeko. Eskua kopeta-

tik pasatu nuen, nabaritu uste nuen izerdi hotza egiazkoa zela ziurtatzeko; dardarka itzuli nuen eskua, eta zorrotik ateratako zapiaren kontra igurtzi, amorruz, atzamar argal haien dardara urduria lotu nahian.

Gorde nuen zapia eta beste pauso bat eman, erabakigarri, ausarti, adoretsu. Hari beste bat lotu nion, begiak oraindik erdi itxirik, oinak lehen mailarekin estropezu egin arte. Begiak indarrez itxi nituen, betazpietan mina sentituz, arnasa indarrez sartu zitzaidan sudur zuloetatik, beroa eztarritik behera eramanez, ostera ere birikiak eta sabela puztu arte. Orduan, biziberriturik, begiak ireki eta lotu nintzaion mailaz mailako igoerari, gelditu gabe, arnasa hanken igo-oinarritzearen erritmora moldatuta. Menderatua nuen izua, edo behinik behin hala pentsatu nuen.

Alabaina, atearen aurrean geratu nintzenean, atearen goialdean dir-dir egiten zuen metalezko xafla izen-deituradunari begira, atzera sentitu nuen arestiko pairamena zetorkidala, lehengo porrotari mendekua hartzeko, nonbait. Hala ere, tinko eutsi nien ikaratzen hasiak ziren hankei, kemenez itsatsi nituen atzamarrak, elka-

rren artean, dardarari biderik ez emateko; lasai hartu nuen arnasa, bihotza taup-taup ipintzeko, patxadatsu, bare. Gero, ezker eskua eraman nuen kopetara, siku zegoela baieztatzeko.

Izutu egin nintzen, txirrinaren hotsak ezustean harrapatu baininduen, hain sartuta nengoen barne lehia hartan. Iruditu zitzaidan argi eta garbi adi zitezkeela barrutik kanpora zetozen oin hotsak. Iruditu zitzaidan ateaz bestaldean zegoenari ere kostata heltzen zitzaiola arnasa ahora. Iruditu zitzaidan, azkenean, menderaturik uste nuen beldurra neu baino indartsuagoa zela eta, azken uneko ihesaldiari men eginez, oraindik garaiz nengoela. Iruditu zitzaidan, besterik ez.

– Maixabel! –harrituta esan zuen Mikelek.

– Mikel –erantzun nion ahots apalez, begiak betazal baina, aldi berean, burua goraturik–, atzo amaitu gabe utzi zenuen afaria eta... Beno, zure bila etorri naiz urrundik, behar zaitugulako eta... ez dizut joaten utziko.

Listua nabaritu nuen ahoan, mihia itotzen zidala, arestian antolaturiko hitzak loditzen zituela, urak zura bezala, azaldu nahi zuena ulergaitz bihurtuz. Irensteko esfortzua egin nuen, ezta-

rrian behera zihoakidan uriola nabarituz. Irri baten atzean ezkutatu gura izan nuen une hartako ahulezia, Mikelengan antzematen nuen indarrari aurre egiteko bide bakarra bailitzan, hala nola leize batetik behera erortzeko zorian dagoenak, gori dagoen iltzeari oratzen dion.

Mikelek atea zabaldu eta sartzeko esan zidan. Hozkirria nabaritu nuen bizkarraldean, garai batean ilusio, amets eta bizinahiaz sorturiko habian ostera ere sartzeak zimiko erregarri bat sentiarazi baitzidan gorputzean. Artez ibili nintzen korridoretik, egongelara, behinola utzi legez zeuden jesarlekuetara, neure txokora. Atzera begiratu gabe, antzina aurrean neukala sentiturik, jarri nintzen betiko jesarleku besodun urdinean, artean nire gorputzaren neurrietara moldatzen zela nabarituz.

Mikel atzetik etorri zitzaidan, isilean, nire urratsak aditzen, askotan irudikatu zituen bezalakoak zirela egiaztatzean nolabaiteko barne pozaz elikatzen. Azkenean buruz buru gelditu ginen, elkarri beha, mutu, barne gogoetan. Mikel nire aurrean jesarri zen, gau askotan egin zuen bezala, niri begira, ameslari.

Berba egiteko imintzioa egin nuen, hitzik egitera heldu gabe, Mikelek isiltzeko keinua egin zidalako, ez baitzegoen prest hiru urte haiek zorrak kitatu gabe joaten uzteko.

– Luzea izan da, Maixabel, oso luzea; ezin duzu imajinatu zer-nolako mina eman zidan zure gutuna hartzeak...

Luze jardun zuen hark, laburrean nik, Mikel neure aldera ekarri behar nuela jakinda. Eta ekarri egin nuen, leuntasunez, itsaso bareak harea eramaten duen bezala, gero berriro hondartzara itzultzeko, inork antzematen ez duen joan-etorriko bidaian.

Bazekien, uraren joan-etorriak nire azpira zeramala, baina uraren laztanak behar zituen, aspaldiko zirrarak berriro ernatzen nabaritzen zituelako, bere gorputza bizirik zegoela berriz antzematen hasia zelako. Kostata, bai, baina ausart, esan zidan bihotzak aldarrika ziotsena, amorruzko sentimendu guztiak soka motzez loturik. Kostata, baina seguru, bihotzari kasu egitera, ez zuela galduko, hiru urte lehenago bihotza salduta, galdu zuen bezala.

– Lagunduko dizut, zerbaitek esaten dit-eta horixe izango dela zu ekartzeko modu bakarra.

– Ondo da! –erantzun nion, haren sentimenduei ate zirrikitu bat ere ez uzteko erabakirik, atea kolpez ixteko kemenik gabe.

«Pizgarria zara, Ahmed!»

– Prest –esan zuen Saidek atetik, Ahmed eta bion arreta eraman nahian.

Bi biak itzuli ginen artean itxi barik zegoen aterantz, «prest!» hartaz itauntzeko. Saidek, hala ere, ez zigun horretarako aukerarik eman, besterik gabe hizketan jarraitu zuelako, korridorean aurrera zetorrela.

– Andresekin hitz egin dut eta Ahmed Algeciras-era eroateko prest dago, diru apur baten truke. Bere kamioian garraiatuko du. Ibilgailuak badu azpialdearekin komunikatzen den zulo bat. Poliziak ez du normalean miatzen, Andres astero igarotzen delako eta oso ezaguna delako. Edozelan ere, erne joan beharko duzu. Nabaritzen baduzu poliziak kamioia gelditu eta barrukoa aztertzeko asmoa duela, arin eta zalu ibili beharko duzu: poliziak atzeko ateak zabaltzeaz batera, azpialdera jo beharko duzu, gurpilen artean ezkutatzera; atea ixten dutenean, azkar gora, ostera ere.

Ahmed eta biok zirkinik egin gabe aditu genituen Saiden azalpenak. Niri neuri beldurgarria ezezik sinetsezina ere begitantzen zitzaidan asmoa. Hizketa lasai garbian hasi nintzaion Saidi, asmoaren alderdi ahulak aireratzeko.

– Eta zeinek ziurtatu dizu Poliziak ez duela atzean zein azpian aldi berean begiratuko? Badute kutxa horien berri, paterak bezain zaharrak dira eta. Gainera, ezin dut ulertu, zakurrez ere ahaztu zara? Makina bat aldiz ikusi ditugu zakurrekin ibilgailuen inguruan, usainka, iheslariak harrapatu nahian, dena zehatz-mehatz miatzen. Zakurrak ederto prestaturik daude, azpialdera jaitsi, gurpilen artean jarri eta segituan harrapatuko dute. Ez egin dudarik!

– Ez, Maixabel, ez naiz zakurrez ahaztu, ez eta polizien trebeziaz ere. Baina, Andresekin luze hitz egin dut: ziurtatu dit azken hilabeteotan ez dutela behin ere miatu bere kamioia. Fidagarria da Andres! Poliziek ondo ezagutzen dute, bere tabernan ibiltzen dira egunero, kartetan edo zurrutean, joko eta parrandako lagunak dira. Andresen taberna polizien bigarren etxea dela entzun dugu hamaika aldiz. Gainera, poliziek ba-

dakite astero joaten dela Algecirasera, edariak eta erostera. Fidatuko ez dira ba, gauero tripa barruak berotzen dizkien pattarraren bila doan lagunaz! Andres, beste alde batetik, ez da sekula iheslarien joan-etorrietan ibili. Zuloa, esaterako, ez du inoiz erabili; bai, aldiz, kamioia saldu zion zerriak, hark bazuen-eta eskarmentu handia trafiko zikin honetan. Behinola, gezurrezko hondoa egin zuen kamioian: ibilgailuaren hormak oihal urdin batek estaltzen ditu, eta txerrikume hark zer egingo eta, oihal faltsu bat ez zuen ipini ba, atzeko paretaren aldera. Horrela espazio estu bat uzten zuen jendea leku batetik bestera igarotzeko. Behin, bi gizajo sartu zituen: barruan zeudela eurek josi behar izan zuten oihala, kanpotik nabari ez zedin. Inolako arazorik gabe heldu ziren Algecirasera. Iritsi, motorra gelditu eta atzean zeraman ezkutuzko karga askatzera jo zuen. Hilda zeuden biak! Itota! Putakume hark ubide zikin batean jaurti zituen bi gorpuok.

Ahmed isilik zegoen, Saiden eta bion arteko elkarrizketa urduria aditzen, esku hartu barik, gaiarekin zerikusirik ez balu bezala. Nik, alta,

bere begiak bilatu nituen, bere iritzia entzun nahi nuela adieraziz.

– Joan egingo naiz! Ez naiz beldur, ez naiz honaino heldu orain atzera egiteko. Badakizue penintsulara iritsi behar dudala, nolanahi dela ere. Saidek modu segurua dela esaten badu, sinetsiko diot; Alak zainduko nau, bestela.

– Segurua da, Ahmed, oso segurua. Geu aurreko egunean joango gara Algecirasera eta bertan lotuko gara Andresekin. Gurekin elkartu ostean, hirira joko dugu, Jezabelen bila.

Saidek eskuak pausatu zituen Ahmeden sorbalden gainean, lagunen aurrean ezkutatu gura zituen nini bustiak agerian utzi nahian, ez baitzegoen lotsa izateko arrazoirik.

– Miresgarria zara, Ahmed, eta ez duzu zergatik lotsatu. Miresten zaitut, bai zu eta bai erakusten dituzun sentimendu horiek. Ez ezkutatu gure aurrean, ez baituzu ezer txarrik ez lotsagarririk egin. Pizgarria zara guretzat. Hondartzan aurkitu zintugun egunean hizketan ari ginen, guztiz etsirik, geroago eta ahulago sentitzen baikinen geure engaiamenduan. Zu eta zure laguna Ceutara heldu aurreko hilabetean 167 lagun hil

ziren itsasoan. Zuek iritsi aurreko astean, 24 lagun ito ziren: itsaso zabalean zeudela, 80 km/orduko haize boladei egin behar izan zien aurre paterak. Imajina dezakezu txalupa ahul hori haizeak harroturiko olatuen artean? Barregarria izango zen, horren tragikoa ez balitz. Heltzeko aukerarik izango zutela pentsatzea ere! Jota geunden, Ahmed. Milatik gora hildako izan dira azken bost urteotan, eta ez dago gelditzerik. 17.000 lagun kanporatu dituzte Espainiatik, haraino patera batean heldu eta gero. Hogei bat mila lagunek lortu dute helburua. Eta gero, zer?... Borrokan segitzeko ilusioa ekarri diguzu.

Andresen tabernara hurreratu ginen biharamunean, hitzarturiko dirua ematera. Urrundik antzeman nuen tabernaren izena, begiak letra gorri eta horietan iltzaturik, eta silabaka irakurri nuen nire artean, barru-barruan grabaturik gorde aldera: Es-pa-ña.

Tabernan sartu bezain laster ohartu nintzen Saidek esandakoaren egiaz: poliziak ziren nonahi, kartetan zein barraren ondoan edaten. Gizonak ziren guztiz gehienak, gizonak eta espainiarrak, poliziak, legionarioak eta handik 100

metrora zegoen Biltzar Autonomikoaren Jauregiko funtzionarioak. Ustelak, Saidek tabernara bidean kontatutakoa aintzat hartzera. Hirurehun mila pezeta aski dira portuan izaten diren poliziak erosteko: iheslariak gauez igotzen dira itsasontzietara, soketatik, eta ondoren ibilgailuak gordetzen diren aldean ezkutatzen dira, goiza heldu arte. Behin Espainiaz gero, fardelez kargaturik lehorreratzen diren familia ugariekin nahasten dira.

Eskuan zerabiltzan kartak utzi eta Saidek aukeraturiko mahairaino hurbildu zen Andres. Heldu eta begirada zuhurra zuzendu zion.

– Zer? Non laga duzu egunkarirako hartu duzuen morroi berria? Ekarri behar zenuen, Andres ezagut zezan. Mairuok ondo ezagutu behar dute Andres eta bere taberna! Ez dezatela esan espainiarrok ez ditugula marokoarrak maite! –eta mahaitik urrundu zen barre-algaraka, inguruko mahaietan zeudenengan irri konplizea sortuta.

Saidek tea edan zuen ezer esan gabe, Andresen txantxak ustekabean harrapatuta, ardura txoko baten mahaian jarrita, jokoa amaitzeko jesartzen ari zen gizon gihartsu harengan jarrita.

Ez genekien zer egin. Andresen ekintzak guztien aurrean jarri gintuen. Horratik, ez zirudien poliziak oso kezkatuta zeudenik Andresek aipaturiko mutilaz, interesgarriagoa bide zitzaien-eta txokoan zerabilten karta jokoa.

Saidek tea hartzeko keinuak egin zizkidan. Ez zegoen batere gustura España tabernan, joateko ideiaz erabat damuturik nonbait. Zutundu eta nire zain egon gabe Andres zegoen mahaira hurreratu zen, bidean zeuden mahaien eta gizonen artean igarota. Tabernako nagusiak, arreta eskuetan zerabiltzan kartetatik bereizi gabe, teena beste baterako uzteko adierazi zion, Saidek, berriro ere, espero ez zuen eran:

– Goraintziak zure lagun ezkutuari. A! laga zorroa barraren gainean, gero zenbatuko dut eta –atzera ere hasi zen barrez, mahaikideekin batera, harik eta kolpe gogor batez mahaian jo eta ozen «voy» esan zuen arte.

Taberna utzi genuen, hitzik egin gabe. Said zurbil zegoen, kolorea zeharo galduta. Bistan zegoen Andresek sorturiko egoera guztiz desatsegina iruditu zitzaiola, ulergaitza ez ezik. Bat-batean, hitz eta pitz hasi zitzaidan.

– Adar jotzaile galanta, ezta? Begiratu, behin batean... –eta berbetan segitu zuen, erantzuteko aukerarik eman barik, argi baitzegoen itaun haiekin ez zuela erantzunik bilatzen, bere gogoa lasaitzea baizik.

Kalakan eta berriketan iritsi ginen etxera, España tabernan jazorikoa gibelean lagata, gertaera hark bi minutuko kezka baino gehiago merezi ez zuelakoan. Said egunkarira bidali behar zuen kronika idazten jarri zen ordenagailuaren aurrean; ni, bitartean, mahai gainean zegoen *Libération* zahar bat hartu eta orriak banan-banan pasatzen hasi nintzen, España taberna iragartzen zuen orri batean gelditu nintzen arte, isilik, pentsakor, nirekiko.

Sarritan ikusi dut Said horrela, etsipenetik baikortasunera igarotzen, gero berriz etsipenean murgiltzen, itotzen sumatzeko.

Horrelakoxea da, hezur-haragizkoa, berari esatea gustatzen zaion eran definitzeko. Erraz hunkitzen da gizakiaren oinazearen aurrean, eta segituan altxatzen da, erabakitasunez, irmo, bere mugarik gabeko gogo bizian itsuturik. «Atzerritarra izatea egokitu zait» esaten du as-

kotan, «eta atzerritarrak gara gizakiaren eta herritarren arteko orbaina».

Sentipen sakon horretan gatibaturik sentitu dut askotan, «gizakiak gara, bai, eta errukia sentiarazten dizuegu; baina, geldi hor, ez gara zuek lakoak, ezin zuen lekuan jarri, eskubiderik ez dugu-eta. Atzerritarrak gara, ez herritarrak».

Susmoa nuen, izan ere, egun hartan ere itsututa zetorkigula, etsipenetik baikortasunera heldu berritan. Susmoa nuen, eta ezin ausart nintekeen itzuliko bidean beste barik jartzen; eta berak eramaten utzi nion.

Bost egun geroago Andresen kamioian zihoan Ahmed, Algecirasera hurbilduko zuen ferryrantz. Aurreko gauean ibilgailua ikusten izan ziren, azpialdearekin lotzen zuen zuloa aztertzen, eta badaezpadako saioak egiten: zulotik gurpil aldera jaitsi eta atzera ere igotzen aritu ziren hainbat aldiz, Ahmed sano trebatuta zegoela iritzi zuten arte. Kamioiaren alboan eman zuen gaua mutilak, España tabernaren atzealdean zegoen garajean, ardo botilen artean, lurraren gainean, Sai-

dek utziriko lastamarrega batean etzanda. Lo egin ezinik eman zuen gaua, kirioak deseginak, urduri, botilen atzean mugitzen ziren saguen pauso txikiak aditzen, tripetako hesteek eztarriraino itzultzen zioten zapore garratza, aho sabaian sentitzen zuen mingostasuna urrumaka desegin nahian.

Ibilgailuari begira eman zuen gaua, kamioiari eta kalera ematen zuen saretari beha, haizeak eragindako zaratak are urduriago ipintzen baitzuen, gau hartan ere, pateraren zain zeuden behinolako beste hartan bezala, polizia agertu eta brastako batean hondatuko zituelakoan bere amets guztiak. Lo egin ezinik zegoela, Saidek egindako gestioez pentsatzen jardun zuen, hausnartzen, gogoeta egiten.

Saidek Algecirasko lagun bati deitu eta Jezabelez galdetu zion. Sona handikoa izan zen Jezabelen kasua, erditu berria izaki, oihartzun handia hartu zuelako inguruko hedabideetan. Horregatik, hemerotekara jo eta erraza izan zen Jezabelen gaineko albisteak aurkitzea. Hedabideek hitzez hitz errepikatzen zuten Ahmedek lehenengo gau hartan esandakoa. Beraz, gertaerei zegokie-

nez, berririk ez; baina, ordu arte ezagutzen ez genuen beste datu bat eman zigun Saiden lagunak: Jezabel Etorkinentzako Harrera Etxetik desagertu zen heldu eta lau hilabetera. Etorkinentzako Harrera Etxea Jezabelentzako lan bat bilatzen hasia zen, sei hileko egonaldia eskuratua baitzion, lana bilatu artean. Gauzak horrela, Jezabel desagertu egin zen gau batean, umea berarekin eramanda. Poliziaren ustez, Jezabelek marokoar gizon batekin ihes egin zuen, nora ez zekitela.

Marokoar haren nortasunaz jardun zuen Ahmedek, berekiko. Ez zitzaion batere normala iruditzen bere arrebaren portaera. Jezabel ez zen erraz joaten ezagutzen ez zuen jendearekin, eta Harrera Etxea lana bilatzen ari bazitzaion, hiriko egunkariek ziurtatzen zuten bezala, ez zen batere zentzuzkoa umea hartu eta ostera ere ihes egitea. Jezabelek senarraren zain egon behar zuen Espainian edota bestela berriro etxera itzuli, senarraren ondora. Horixe zen neskarengandik espero behar zen portaera, eta ez beste hura, iluna eta ezkutua.

Ahmedek Saidez pentsatu zuen, Jezabelen ihesaren berri izan bezain pronto Marokora joan baitzen, Hamidekin hitz egitera, ea Jezabelen joan-etorrien berri bazuen galdetzera. Jezabelek ia astero idazten zion senarrari, umearen eta bere egoeraz berba egiteko. Horregatik, gutunek ihesaren zergatia argi zezakeela pentsatu zuen Saidek. Ez bat eta ez bi, pentsatu eta Ahmedi eskatu zion bere etxekoen helbidea, haraino joan eta eurekin harremanetan jartzeko. Ahmed duda-mudatan ibili zen, Said gurasoen etxean agertzeak kezka baino ekarriko ez zielakoan. Hala ere, ulertu zuen beste aukerarik ez zitzaiola gelditzen, Hamidek jasotako gutunetan Jezabeli buruzko argibideren bat topa zezakeelakoan.

Pentsamenduetan murgildurik zegoela harrapatu zuen egunsentiak. Goizeko zazpietan, aurreko egunean lotu bezala, taberna garajearekin lotzen zuen atetik sartu zen Andres, umoreko, egitera zihoan ekintzak inolako kezkarik sortzen ez ziola agerian utziz.

– Ze, motel, honezkero ezagutuko dituk garajeko sagu guztiak, eztuk? Tira ba, garbi hadi,

gura baduk, hor dagoen harrian, botilak garbitzeko erabiltzen diat, baina ez duk ezer gertatuko gaur *atuna* garbitzen bada –ohi bezalako barreak egin zituen legionario ohiak, aldarte onez zetorrela erakutsiz–. Segi, ba, arinago, mutil, ferrya ez duk gure zain egongo! Tira, sar hadi atzealdean eta, badakik, kamioia gelditzen dudanean, erne ibili. Ikusten baduk poliziak sartu egingo direla, altxa estalkia eta ezkutatu gurpilen artean. Osterantzean, lasai.

Lasai ez, baina bestela hitzez hitz bete zituen Andresen aginduak Ahmedek. Kamioian sartu eta zuloa zegoen aldera hurreratu zen, kamioiaren ardatzaren pare-parean. Ez zuen arazorik handik sartzeko, argala zelako, baina bistan zegoen ezingo zela zulo hori edonorekin erabili.

Hamar-hamabost minutu geroago ibilgailua gelditzen zela nabaritu zuen, portura-edo helduak ziren seinale. Mutila, belarriak erne, zuloaren estalkiaren ondoan jesarri zen, aurreko egunetan ikasi bezala, atzeko atean zaratarik txikiena entzunda estalkia altxatu eta azpialdera pasatzeko aitaren batean, estalkia berriro ere kontu handiz itxita. Poliziatzat hartu zituenen

ahotsak entzun zituen, Andresenarekin batera: «Beno, Andres, ea zer-nolako ardoa erosten duzun gaur, e! Aurreko astekoak jota utzi dizkit erraiak». «Bai eta poltsikoak ere» entzun zion beste bati. «Tira, Andres, gaur kamioia arakatu beharko dugu, nagusiak atun freskoak dabiltzala esan digu eta guztia miatzeko agindu digu. Badakizu, tramite hutsak eta». «Bai, begiratu, begiratu, lasai oso, gizon» entzun zion lehendabiziko aldiz Andresi, «botilak eta kutxak besterik ez dituzu aurkituko». Ahmedek, ateko zarata entzun eta bizkor baino bizkorrago zabaldu zuen estalkia, azpialdera jaitsi, itxi eta gurpilen artean ezkutatu zen. Handik, polizien hankak ikusten zituen, bai eta inguru-minguru zebiltzan zakurrak ere. Haietako bat zaunkaka hasi zen, Ahmed ezkutatuta zegoen alderantz joateko tiraka; uhala zeraman poliziak, aldiz, gibelerantz egiten zion, Andresekin mintzatzen zen bitartean: «Gose dira! Badira hainbat hilabete atunik harrapatzen ez dutela eta... Gainera, atunei beldurraren beldurraz izerdi patsetan dabiltzanean darien kiratsa dirudi hor daramazun ardo horrenak. Ze nazka! Tira, mutilok, itxi ezazue atetzar hori,

bestela oka egingo dut eta!» Ahmed berriro igotzeko gertu zen, zaunkaka zebilkion zakurrarengandik begiak urrundu gabe. Atea ixten zutela entzun eta jauzi batez sartu zen kamioian. Etzan egin zen, estalkiaren gainean, kanpotik zabaltzea saihestu nahi balu bezala. Bihotza taupada arinean zihoakion, bularraren aurka kolpez kolpe. «Ea, Andres, orain azpialdean begiratuko dugu, horrela lasai geldituko da zakurra». «Bai, eta baita bulegoan leihotik begira dagoen beste hori ere». «Ikusten hemen ez dago ezer, nahiz eta atun izutuaren kiratsa guztiz nabaria den. Seguru baten bat kaka eginda daramazula hor, Andres». Denak hasi ziren barre algaraka, modu deigarrian. Orduantxe ikusi zuen argi eta garbi Ahmedek: dena komedia hutsa zen, Saidi dirua ateratzeko antzerki hutsa. Andres eta poliziak bat zetozela ulertu zuen mutilak, eta zuloaren istorioa eta parafernalia guztia, «orain igo, orain jaitsi, itxi atea, kontuz ez atera zaratarik...», ekintzari zailtasun itxura emateko bide bat baino ez zen. Horrela diru gehiago ateratzeko asmoz, ziur asko, pentsatu zuen Ahmedek bere artean: «Ustelak!».

Ahmedek dena kontatu zidan Algecirastik hur elkartu ginenean, Andresen kamioia bidean galduz zihoala. Amorruz itxi nituen begiak eta ukabilak, amorruz eta tristuraz, Saidez pentsatzen hastearekin batera. Saidi haren berri ez emateko eskatu nion Ahmedi, ez bainuen barregarri senti zedila gura. Isilik egin genuen Saiden lagunak utziriko etxerako bidea, nor bere minetan sarturik.

Algeciras, 1996ko urtarrilak 15

Kaixo, maitea:

Zelan zaude? Ondo eta animaturik, espero dut. Gu ondo gaude, gero eta hobeto.

Espainian igaro berri dira Gabonetako jaiak. Ikusi beharko zenuke zer-nolako ospakizunak egiten dituzten: dena da jaia, dena alaitasuna, dena opariak eta dena janaria. Ia bi aste ematen dituzte jai eta jai. Lehenbizi Gabon gaua deritzoten festa ospatzen dute: Jesus jaio zen egunaren ospakizuna da eta gauez egiten da jaia. Etxean, familiak bildurik, mahai ondo atonduan. Biharamunean, Eguberri deitzen duten egunean, bazkaria egiten dute, berriro ere denak mahaiaren inguruan elkarturik. Sei egun geroago gau zaharra izenekoa ospatzen dute, urteari amaiera ematekoa. Hori da hori! Gabon gauean bezala, etxe batean elkartzen dira afaltzeko; gero, gauerdian, egundoko jaia antolatzen dute etxe guztietan: telebistan ikusten dute Madrilgo Sol

deritzoten plazatik zuzenean, erlojuaren orratzak hamabietara hurreratuz doazela, prest denak, erlojuak hamabiak jo, din-dan, din-dan, eta batera hasten dira mahats aleak jaten, orduak beste: hamabi. Ondoren elkar besarkatu eta urte berri ona opa egiten diote elkarri. Hortik aurrera kalean zein etxeetan dena da zarata, dena algara: suziriak, lapiko hotsak... Jendea kantari ibiltzen da kalean, musuak eta zorion nahiak zabaltzen han hor hemen. Gustatuko litzaizuke.

Sei egun geroago Errege Magoen eguna ospatzen dute: opariak nonahi, umeentzat, helduentzat, zaharrentzat. Gurera ere etorri ziren, Harrera Etxera. Umeari arranbera bat eta neguko jantzi bat ekarri dizkiote; niri zetazko zapi eder bat.

Luzeak dira egunak zu gabe, jaiak jai. Zure abokatuaren berri ere izan dut. Baikorra da, laster kaleratuko zaituztela uste du. Zigorra ohi baino luzeagoa izaten ari da eta, eskarmentu ederra eman nahi diote jendeari, ihesaldiekin amaitzeko edo. Haren iduriz, dena izango litzateke askoz errazagoa ni itzuliko banintz, bion zigo-

rra ordaintzen ari zarela pentsatzen baitu. Zuk esango didazu zer egin behar dudan. Mementoz hemengo egonaldia luzatu didate, eta lanpostu bat bilatzen hasiko naiz.

Ez zaitut kezkatu nahi, baina hemen dena ez da iruditu ahal zaizun bezain ederra. Lehengo egunean hilda aurkitu zuten berton ezagutu nuen emakume bat. Errepide baten bazterrean laga zuten, biluzik, bortxaturik. Poliziaren iritziz, oso tratu txarrak jasan zituen hil aurretik. Nire lagun hori hemen ibiltzen den gizon batekin joan zen, ezkutuan. Ez zait batere gustatzen gizon hori, ezin hartaz fidatu.

Diru asko omen dauka, ez dakit zer-nolako negozio ilunetan irabazita. Harrera Etxeko langile batek kontatu didanez, gure bizkar egin du dirua horrek! Hartaz hitz egitean laztu egiten zaizkidan ileok! Berriro ere agertu da egunotan gurean. Agh!

Beno, maitea, umeak jan egin behar du. Ikusi beharko zenuke nolako grinaz heltzen dion titi buruari, tira eta tira, esne goxoa ateratzeko. Gero eta handiagoa da! Osasuntsua, lotia, zu bezain beltzarana... ederra!

Maite zaitut!

Jezabel

Angelica

– Jezabel diozu? Bai, utzi apur batean pentsatzen..., orain dela hiru urte hemen izan zen. Oso emakume atsegina. Eta liraina! Zer dela eta galdetzen didazue? Nortzuk zaretela esan duzue?

– Kazetariak. *Libération* egunkariko kazetariak gaituzu. Artikulu bat egiten ari gara Espainian jaiotako umeei buruz, iheslarien umeei buruz. Jakin dugu Jezabel Ceutan erditu zela neska batez eta...

– Bai, bai, neskatxo bat izan zuen. Zelan zeritzon? Utzidazue pentsatzen... Fatima! Bai, Fatima eta Jezabel.

– Aizu, eta ez duzu jakingo non bizi diren egun, ezta? Ziur asko lanen bat aurkitu eta hemen geldituko ziren, Marokora ez baitziren itzuli.

– Beno, bada, ez dakit. Artxiboetan begiratu beharko nuke, eta orain ez dut astirik. Gainera, duela hiru urte izan bazen hemen, ez dugu horren daturik izango, lana topatutakoan Barne Ministerioaren esku uzten dugu eta. Badakizue...

jende asko igarotzen da etxe honetatik eta daukagun aurrekontuarekin ezin guztien jarraipena egin. Jezabel! Bai, ze emakume pertxenta!

Besterik esan gabe, zutundu eta langelako ateraino lagundu gintuen, zeregin handiak zeuzkala behin eta berriro errepikatuz. Atearen ondoan gelditu ginen, elkarri begira, nora jo ez genekiela.

– Zergatik ez diozu esan hedabideek desagerpenaz ziotena? –itaundu nion.

– Ez zaizu iruditzen berak esan behar zigula? Jezabelen ederraz horren ondo oroitzen bada, ez duzu uste bat-bateko ihesaldi edo delako hartaz ere gogoratu beharko zela? Zer edo zer ezkutatu digu.

– Zer?

– Ez dakit ba, baina gogoan zituen biak, Jezabel eta Fatima. Hiru urte pasatu dira eta, berak esan bezala, horrenbeste jende igarotzen bada hemendik, ez zaizu berezia iruditzen bien izenak horren ondo gomutatzea? Gainera, ez zait batere gustatu Jezabel aipatzean erakusten zigun irri maltzurra, ia adurra zeriola zegoela iruditu zait!

– Bai, konturatu naiz. Ez dirudi morroi garbia denik.

Berbetan geniharduela, atetik urrundu gabe artean, emakume bat hurreratu zitzaigun. Gurutze gorriko uniformea zeraman soinean, eta ezkerreko bular gainean Angelica zela adierazten zuen txarteltxoa. Lotsati mintzatu zitzaigun.

– Barkatu, baina... atrebentzia ez bada, jakin nahi nuke... zera... poliziak zarete?

– Ez, kazetariak gara, Marokoko *Libération* egunkarikoak. Zer ba?

– Ez... –bistan zegoen nahigabetuta zegoela. Keinu bat egin zigun zuzendariaren bulegotik urrun gintezen, korridorean aurrera–. Jezabel izena entzun uste dut.

– Ondo entzun duzu. Zer diotsu izen horrek, bada?

– Laguna nuen Jezabel, lagun mina. Baina... hau ez da hitz egiteko leku ona. Nahi baduzue, hiruretan, nire txanda amaitzen denean, udaletxeko plazan dagoen Isidro kafetegian elkartuko gara.

– Ondo da!

Hamabiak ziren. Etxera itzuli eta Ahmedi gure gestioen berri ematea deliberatu genuen, bertan utzi baikenuen, ez zitzaigun-eta oso segurua iruditu Algecirasen ibiltzea, normalean hirian ikusten dituzten atzerritar guztiei agiriak eskatzen dizkietelako. Hura hala, Said eta biok joatea erabaki genuen, Ahmedek hiriaren kanpo aldean zegoen etxean atsedena hartzen zuen bitartean.

Ahmedek tristuraz entzun zituen zuzendariarekin izandako hitzak, eta jakinguraz Angelicari buruzkoak. Mahai gainean zeukan Saidek ekarririko gutuna, behin eta berriro irakurria, buruz ikasi arte irakurri ere.

– Zergatik ez diozue galdetu Jezabelek aipatzen duen gizonaz?

– Zuzendaria ez zaigu batere fidatzekoa iruditu. Alferrik ibiliko ginen hari galdezka. Gizon horrek ez digu ezer esan nahi, batek daki zergatik, baina bistan da. Bere jarrera ikusi bezain laster isiltzea erabaki dugu, ez baikenuen demaseko jakin-minik erakutsi nahi.

Ez zen gustura gelditu mutila. Gutuna hartu zuen eta atzera ere irakurtzeari ekin zion, iraku-

rri gabe ere, hitzez hitz behin eta berriz errepikatzen. Urduri zegoen Ahmed. Etxean itxirik egon beharrak ez zuen batere poztu. Arrebaren bila irten nahi zuen, gurekin batera, arriskuak arrisku. Ez zen Ahmed etxean zain gelditzen diren horietakoa. Itxaron beharrak barrua kiskaltzen zion, ezin zuen eraman.

– Zuekin joango naiz Isidro kafetegira! Eta ez dit axola zer arrisku dagoen hor kanpoan!

Isilik begiratu genion, kontrakoaz konbentzitzen saiatzea alferrik jardutea izango zela ulertuta. Bazkaria prestatzeari lotu gintzaizkion.

Hirurak eta laurdenetan hurreratu zitzaigun Angelica kafea hartzen ari ginen mahaira: aulki bat hartu, gure artean ipini eta keinu bat egin zion Isidro izan behar zuen gizonari: «Betikoa!». Isidrok ogitarteko eta garagardo bat ekarri zizkion azpil batean.

Tabernaria urrundu bezain laster lotu zitzaion gaiari:

– Jezabelen lagun mina nintzen. Ospitalean ezagutu nuen, praktikak egiten ari nintzela, bera zaintzen laguntzea egokitu zitzaidalako. Fatima izan zen mundu honetan zaindu nuen lehendabi-

ziko jaioberria, eta horrek izugarri lotu ninduen haiei. Jakin nuenean Etorkinentzako Harrera Etxera eraman behar zituztela izugarri poztu nintzen, bertako boluntarioa naizelako. Pentsa ezazue! Lehendabizi erditu berrian lagundu, eta gero hazten! Zoratzeko zorian nengoen, pozaren pozaz.

Koska egin zion ogiari eta, ordu arte erreparatu ez balio bezala, Ahmedi begira gelditu zen, artez:

– Zuk Ahmed izan behar duzu! Haren begi berdinak dituzu! Haren begirada! Jezabel asko mintzatzen zen etxekoez, etengabe. Ahaleginak egiten zituen zoriontsu izateko, baina bihotza han zuen, etxekoekin. Maiz errepikatzen zuen damu zitzaiola senarrari jaramon egin izana; berandu, baina.

»Jezabelek arriskuan ikusi zuen bere burua, eta horregatik ihes egin zuen. Ziur nago! Ez dut orain kontatuko dizuedana frogatzerik, baina sinets iezadazue eta ez zaizue dolutuko. Gure artean eman zituen azkeneko egunetan izugarrizko aldaketa antzeman nion Jezabeli. Ez zen betikoa. Argi zegoen zerbaitek atsekabetzen zuela.

– Zerk?

– Ez dakit. Jezabelek egunero laguntzen zidan heldu berriekin. Etxeko arauak azaltzen eta hemen egon artean aintzat hartu behar zituzten gauzak adierazten. Egunero, Fatimari jaten eman ostean, sehaskan utzi eta heldu berriak elkartzen ziren sotoko gelara jaisten ginen biok, etorkizunaz eta iraganaz berriketan. Ondoren, iritsi berriak eramaten genituen geletara, familiak baziren elkarrekin jarrita, ume txikirik edo bazegoen, beheko solairuan, emakume bakanak baziren, behean ere; gizonezkoak, gora. Egunero berdin, hutsik egin gabe.

– Noiz ohartu zinen Jezabelen aldaketaz?

– Bera desagertu baino sei bat egun lehenago. Egun hartan ez zituen bere eginkizunak bete. Harrituta gelditu nintzen. Horregatik, nire beharrak amaitutakoan, haien gelara joan nintzen. Sehaskaren ondoan zegoen, umea zaintzen, begi beldurtu eta busti haiekin, horren adierazgarria zen haren keinua! Hasieran umea gaixorik zegoela otu zitzaidan eta halaxe galdetu nion. Ez zidan erantzun. Bere herriko kantak abesteari

lotu zitzaion, sehaska hara-hona kulunkatzeari utzi barik.

»Bakarrik utzi nuen, hala nahi zuelakoan, eta biharamunean bere ondoezaren zergatia azalduko zidalakoan; ez zen agertu, baina. Umearen ondoan ematen zituen egunak eta gauak, harengandik urrundu gabe, ezta jatorduetan ere. Zuzendariarekin hitz egitera joan nintzen eta modu txarrean erantzun zidan, haiek ez zirela nire betebeharrak, ni ez nengoela etorkinen sentimenduez kezkatzeko eta... Bost egun geroago desagertu zen.

Eskua eraman zuen aurpegira, begi ertz busti berriak xukatzeko. Goibeldurik zegoen Ahmed, Angelicaren malkoak ikusita, Saiden itzulpenaren beldur.

– Angelica –esan nion, muki zapia gordetzen ari zela–, Jezabelen gutun bat eskuratu dugu senarrarengandik. Artegatzen zuen gizon bati buruz mintzo da eskutitzean, gauza handirik esan gabe bada ere. Badakizu nortaz ari zen?

Hausnartzen jardun zuen, hitzak ondo lotu nahi balitu bezala, esan behar zuenaren larritasunaz guztiz jabeturik zegoela.

– Juan Garciaz.

Hotel Altube

– Lortu ditut eskatu zenizkidan txostenak –esan zidan Mikelek autotik jaitsi eta berehala, Barakaldoko San Juan kaleko taberna batean–. Kontu lokaztuak daude istorio honetan, Maixabel. Ez dakit ondo neurtu duzun zer korapilotan sartzen ari zareten, arrisku handiko urak dira hauek, neska!

– Mesedez, ez hasi orain horrelako huskeriekin! Pentsatuko ez genuen ba! Begiratu, Mikel, auzi hau ez da nire apeta, zure ustez sarri askotan izaten ditudan kasketaldietako bat, alegia. Hemen gizaki baten bizitza dago auzitan, bere eskubideak, bere izateko eskubidea.

– Hori guztiori oso ondo dago; baina, ez ote litzateke zuzenago Poliziaren esku uztea? Eurek ikertuko lukete emakume horren desagerpena, bai eta mutilaren egoera legeztatu ere, arreba bilatzen duten bitartean, behintzat.

– Inozoa zara benetan! Ez dakit zer-nolako txostenak lortu dituzun; baina, horiek ikusita, oraindik ausartzen zara polizia eta epaileekin fi-

datzen? Ez zara konturatzen sistemaren ustelkeria dela nagusi istorio honetan: poliziak eta epaileak ere buru-belarri sartuta daude auziotan! Ez denak, noski, baina bai asko!

Mikelek ez zuen besterik esan. Mahai gainean zeuden kafe kikarak baztertu eta bere alboan jesartzeko keinua egin zidan, esku zorroan zeramatzan paperak erakusteko. Ondo-ondoan jarri nintzen, «hurbilegi», esan nuen nire artean, baina berandu zen bereizteko. Gainera, halako mugimendu batek Mikel muzin zezakeela pentsatu nuen, zegoen baino ezerosoago utzita.

Bere eskuek eta nireek elkar ukitu zuten kartoizko karpeta berdea zabaltzerakoan. Une batean geldirik utzi zuen eskua, beren-beregi, nire erreakzioa aztertzeko asmoz. Gero, guztiz bereizi barik, txostenaz hitz egiten hasi zitzaidan.

– Hemen dituzu esandako Ernesto horri buruzko datuak. Zuk esan bezala, ertzain baten aurkako salaketa aurkeztu zuten duela urte batzuk. Ertzain hori Ernesto Kamiruaga da. Duela urte batzuk atxilotu egin zutela jakin dut, proxeneta zelakoan. Negozio bat zeraman Portugaleten, emaztearen izenean jarria. Teorian masa-

jeak emateko negozio bat zen : «Terciopelo Negro». Poliziak negozio hark prostituzioa ezkutatzen zuela frogatu zuen eta, ertzainen iritziz, Ernesto delako hark hantxe jarduten zuen askotan, negozioa berak zuzentzen zuela. Epaileak, hala ere, aske utzi zuen. Ikusi, hemen duzu datu harrigarri bat: Ertzaintzak orduak gordetzeko liburua aurkeztu zuen froga gisa, hara joaten ziren gizon eta emakumeen izen-deiturekin. Helburua, bezeroen aurka egin beharrean, Ernestoren esku-hartzea frogatzea zen. Epaileak ez zuen kaligrafia frogarik eskatu! Negozioa itxi zuen, dena den. Handik bost hilabetera beste bat zabaldu zuen Erandion: «Masajes Bidezabal».

»Hauxe interesatuko zaizu –jarraitu zuen Mikelek, kafe trago bat hartu ondoren–. Urte hasieran, zortzi emakumek Altube hotela salatu zuten, prostituitzera behartzen zituztela adieraziz. Bost kolonbiar eta hiru marokoar ziren. Emakume horiek Latinoamerikatik eta Afrikatik etorriak ziren, enpresa batek bisatuak eta bidai txartelak ordainduta. Enpresa hori, hara, Masajes Bidezabal zen! Edo, hobeto esanda, Masajes

Bidezabalek emandako banku abal baten bidez, Altube ostatuak berak ordaindu zituen.

»Emakume haien salaketaren bidez, prostituzio sare bat atzeman zuten. Sare horrek Algeciras, Madril, Orihuela eta Torreviejako negozio batzuk biltzen zituen, hemen Euskal Herrian zabalduta zeudenez gainera.

Besoa pasatu zidan sorbaldaren gainetik, bere atzamar indartsuak nire ile kizkurrean jolasten jartzeko. «Gustura geldituko zinen, ezta?» galdetu zidan batera, eskua burutik kendu gabe. Atsegin nuen Mikelen fereka hori, eta berak bazekien, atsegin nuen elkarrekin ibiltzen hasi ginen egunetik bertatik, hura izan baitzen ohera eraman gintuen jolasaren lehendabiziko pausoa.

Aulkira bueltatu nintzen, Mikelek ekarririko paperekin, Mikelengandik ihesean nindoala oharturik. Beldur nintzen, ez nuelako joko hartan berriro sartu nahi, ez nuelako harenganaino eraman ninduen arrazoitik urrunduko ninduen ezertan murgildu gura, eta are gutxiago min handia ekar zezakeen harreman zoro hartan.

El Moro

Algecirasko jatetxe ospetsu baten jabea zen Juan Garcia. Bertan hiriko negozio gizon-emakumeak elkartzen ziren sarri askotan, euren gorabeherez mintzatzeko eta elkarren arteko loturak indartzeko. «El Moro» zuen ezizena: soldaduska Melillan egin zuen legionarioekin eta han, berak zioen bezala, lagun min ugari zuen, bai eta Ceutan ere.

Algeciras osoak ezagutzen zuen Juan Garciaren jatetxea, eta Algeciras osoak ezagutzen zituen Juan Garciaren trebetasunak eta abileziak. 1987an atxilotu egin zuten, ustez marokoar bat hiltzeagatik.

Ezagutu genuen egunean jatetxean zegoen, barraren mutur batean whisky hotz bat hartzen, praka koadrodun batzuk eta alkandora zuri bat soinean, zilar koloreko burezur deigarri bat lepotik zintzilikaturik. Kaskamotza, bistan uzten zuen ezkerreko belarritik gora ia buru erdia zeharkatzen zion orban eguzkiak gorritua. Buruko izerdi tantek dir-dir egiten zioten barrako argien az-

pian, masailetan behera egiten zuten bidea are nabariagoa egiten zutelarik. Izerdia zerion samari, kokotsean sortu eta bularrean zabaltzen zitzaiola. Whiskyan jarritako jelei eragiten zihardu en atzamar batekin, begiak izotzek likidoan marrazten zuten zirkuluan galdurik.

– Zer diotsu Adjib izenak? –esan zion Saidek.

– Adjibek?

– Beharbada, lagunduko dizu marokoarra zela eta bide bazterrean bortxaturik eta hilik agertu zela jakiteak, 1996ko urtarrilean.

– Nork jakin gura du?

– Hilik agertu aurreko gauean zurekin ikusi zutela aitortzeko prest dauden morroi batzuen mandatariak.

– Eta zer mandatu eman dizute puta alaen harekin ikusi nindutela dioten horiek?

– Beno, nire lagun horiei ez zaie larregi interesatzen Adjib, ezpada haren laguna zen beste marokoar bat, eta, agian isiltasunaren truke, zeuk izango duzu zer kontatu –Said serio ari zen, Juan Garciaren ondoan jesarrita, hari artez behatu gabe, tabernariak ipiniriko kafe hormaduna lasai askoz hartzen zuen bitartean.

Juan Garcia zutundu eta jatetxearen albo batean hasten ziren zurezko eskailerak igotzen hasi zen, tutik esan gabe. Saidek azken zurrupada eman zion kafeari, zutitu eta Juan Garciari jarraitu zion. Gora heldu eta «Pribatua» zioen ate baterantz jo zuen. Hantxe zegoen Juan Garcia, pareta ondoko armairutik harturiko botila whiskya eta bi edalontzi eskuan.

– Atsegin dut negozioetan etortzen zaizkidan lagunekin trago bat hartzea. Izotzik bai?

Edalontzia hurbildu zion Juan Garciak, esku iletsu haren atzamarren puntarekin astiro eramanez.

Saidek trago bat hartu zuen. Whiskyak eztarria eta bularra erretzen zizkiola nabaritu zuen, ahoan utziriko zapore gustagarriak laketurik. Beste trago bat hartu zuen, edariak mihia askatzen lagunduko ziolakoan. Juan Garciak bere mahaiko kaxoia zabaldu zuen, bertan gorderik zeukan pistola begien bistan utzirik, eta poker karta batzuk atera zituen. Kartak eskuetan erabiltzen hasi zen, Saiden erantzunaren zain gogaitzen hasia zela adieraziz.

– Nire lagunek Jezabel izeneko emakume baten berri izan nahi dute, Jezabel eta bere alabaren berri: Fatima.

Batera egin zuten hurrup: batak, kezkarik eza erakusteko keinu aspertua eginez; esandako hitzek sorturiko lehorra bustitzeko, besteak. Eskuz garbitu zituen ezpainak Juan Garciak, eta eskuak elkartu zituen kokotsaren azpian. Isilik eman zuen hurrengo minutu erdia, Saidi begira, artez. Juan Garciak zapia atera zuen, kopetako izerdia lehortzeko. Ezkerreko hatz erakuslea hozkatu zuen, hitz egiten hasi aurretik:

– Berton hilko bazintut, inork ez luke zure berririk izango. Oso erraza litzateke hementxe zu akabatzea eta zure gorpua bihar kaiaren ondoan agerraraztea. Egunkariek beste mairu zikin baten heriotzaren berri emango lukete, besterik gabe.

– Alferrik ibiliko zinateke mandatari xumeok akabatzen, nire lagun horiek beste bat bidaliko lizukete eta kito –erantzuten ausartu zen Said, beldurtzeko hitzen aurrean makurtuz gero, benetako mehatxu hitzak etorriko zitzaizkiolakoan.

– Alde hemendik, nazkagarri hori!

Said altxatu eta aterantz jo zuen, mahai gainean Algecirasko posta kutxa baten zenbaki bat utzita.

– Asteazkena arte zain izango naiz, gero nire nagusiei deituko diet –esan zion atea itxi aurretik.

Eskailerak jaitsi eta bere atzetik joateko keinu bat egin zidan, gehiegi elkartu gabe hala ere. Beste espaloira igaro ginen, metro batzuen aldea bien artean utzirik. Handik jatetxe gaineko leihora begiratu nuen. Langelan zegoen Juan Garcia «El Moro», leihotik begira, beste bi gizonekin mintzatzen.

Atzerritarren Auziei buruzko Brigada Nagusi

Asteazken goizean postetxera jo genuen, Juan Garciari egindako mehatxuak eraginik izan ote zuen jakitekotan. Eta halaxe gertatu zen: gutun-azal zuri bat zegoen, inolako mezurik gabekoa kanpoaldean. Saidek tentu handiz ukitu zuen, ustekaberen bat edo beste saihestu nahian. Ez zuen ezer susmagarririk antzeman.

Postetxearen ondoko tabernara joan ginen. Saidek gutun-azala urratu zuen, barruan zeuden paperak ateratzeko. Paper bakarra zen, egunkari baten orri zati bat. Saidek kartazalean besterik zegoen begiratu zuen. Orri zatiak albiste bakar bat zekarren, hainbat lerro bolaluma urdinez azpimarraturik.

Albistea irakurtzen hasi zen, ozen, neuk ere haren edukia ezagut nezan.

«Atzo eguerdian amaitutzat eman du operazioa Atzerritarren Auziei buruzko Brigada Nagusiak. Zortzi emakumek egindako salaketa izan

da ekintzaren abiapuntua. Horren bidez hankaz gora ipini dute Afrikako gazteak Espainiara, gero Madrilgo Casa de Campo inguruko klubetan prostituitzera behartzeko, ekartzeaz arduratzen zen erakunde bat. Erakunde hau Ceuta eta Melillako errefuxiatu eremuetatik zuzentzen zuten eta Gobernuaren eta Gobernuz kanpoko Erakundeen arteko egitasmoez baliaturik ekartzen zituzten penintsulara. Hauek behin-behineko egoiliar baimena lortzen zieten, eta errefuxiatu eremuetako arduradunen bidez helarazten zizkieten afrikar emakumeei; horiek, baina, behin penintsulara helduta, baimen agiriak kentzen zizkieten.

Vicálvaroko hiru etxebizitza aurkitu dituzte ekintzan. Bertan ixten zituzten emakumeok, heldu bezain laster. Ondoren, beste probintzia batzuetan zeuzkaten etxeetara eramaten zituzten: Coruña, Santiago, Xixon eta Valentziara. Animaliak bailiran erabiltzen zituzten emakumeok, beti «txuloen» begiradapean. Beste batzuk Madrilen gelditzen ziren, Casa de Campoko inguruetan prostituitzeko».

Isilik gelditu ginen, egunkari zatiari begira. Bat-batean, tabernaz beste aldeko espaloian guri beha zegoen gizon garai bati erreparatu nion. Zigarro bat erretzen ari zen, urduritasuna adierazten zuten keinu biziekin, zigarroa ahora eraman eta eraman, kea botatzeko betarik hartu gabe. Juan Garciarekin bulegoko leihoan ikusiriko bi gizon horietako bat zela ezagutu nuen.

Arineketan irten ginen tabernatik, morroiaren atzetik. Gizonak, tabernatik irten eta bera zegoen aldera gindoazela ohartutakoan, lasterka ihes egin zuen, kalean aurrera.

Atari batean babestera zihoala harrapatu genuen. Hormaren kontra bultzatu zuen Saidek, atzetik lasterka etortzeak emandako indarraz. Lepo inguruan ipini zion eskua, askatzeko egiten zituen ahaleginak baliogabetu nahian. Kolpe gogor bat eman zion sabel azpian, geldi zedin. Bere baitan bildu zen, potroetan harturiko bigarren kolpeak emandako minaren ondorioz. Belauniko jausi zen, burumakur, eskuak lurrean oinarriturik. Halako batean labana atera zuen ezkerreko poltsikotik, kirtenean zuen mekanismoa sakatu eta xafla atera zuen. «Kontuz!» oihukatu

nuen, gizona labankada ematear zegoela. Atzera egin zuen Saidek, ganibet xafla guztiz saihestera heldu barik.

Gizona arrapaladan irten zen ataritik. Orduan hots gogor bat aditu nuen, arin zetorren auto baten galgek sorturiko zarata entzun eta berehala. Atartetik irten ginen Said eta biok. Juan Garciaren morroia lurrean zetzan zerraldo, ahotik odola zeriola. Auto gidariak sarritan errepikatzen zuen autoen artean jalgi eta denborarik ez zuela izan autoa gelditzeko. Lekukoak bilatzen zihardu en, oihuka, zeharo artegaturik.

Atarian bertan ezkutatu ginen, postontziak zeuden aldean sortzen zen itzalean babesturik, kanpotik zetorren harrabotsari adi. Odoletan zegoen Said, hartutako labankadak ezkerreko zangoaren izterra harrapatu baitzion.

– Pedro da!, Juan Garciaren anaia –aditu genuen kalean sorturiko ika-miken artean.

Elkarri so egin eta, ezer esan gabe, irteten saiatu behar genuela ulertu genuen, kanpoan zegoen nahasteaz baliaturik. Nire sorbaldan oinarritu zen Said, jende artean sigi-saga zihoan

bikote arrunt bat bagina bezala, Saidentzako makulua nintzelarik.

Postetxearen ondoko garajera heldu eta denbora eman gabe irten ginen, gertaera lekutik urrutiratzea premia handikoa zelakoan. Atzera begiratu gabe gidatu nuen, urduri, minutu batzuk lehenago jazotakoa hiriko kaleen artean galdu nahian.

Kala txiki batera hurbildu ginen, izterrean egindako zauria begiratzeko asmoz. Saidek prakak erantzi zituen, minezko keinuen artean. Odol asko galtzen ari zen. Zauria garbitu nion, hobeto ikusteko: itxura txarra zeukan, sakona eta hatz erakusle bat luze. Ospitalera eraman behar nuela esan nion, baina ezezka erantzun zidan, ospitalean txostena egin eta poliziari helaraziko ziotela. Guztiz arriskutsua begitandu zitzaion, poliziak harrezkero Pedroren laban odolez zikindua edukiko zuelakoan.

Saidek autoko botika kutxan zeramatzan gasa batzuk atera eta ondoan zegoen orratz poltsa bat erakutsi zidan: «Josi beharko didazu». Zurbil gelditu nintzen, Saidek eskaturikoak guztiz beldurturik. Zelan esan Saidi ezin nuela,

odola ikuste hutsak gaixotzen ninduela, eskuak dardarka nituela. Saidek zauria garbitu zuen atzera ere. Gero, orratz poltsa hartu eta bat atera zuen. Haria sartu eta eman zidan: «Besterik ez dugu, Maixabel».

Orratza hartu nuen, mutur batetik zintzilikaturik zeraman haria hatzen artean nabarituz. Izerditan ari nintzen. Saidek berriro garbitu zuen zauria eta keinu batez adierazi zidan non sartu behar nuen neure atzamarretan dardarka nerabilen orratz punta. Saiden min oihua izan zen entzun nuen azkeneko gauza, hasi eta zertan ari nintzen ez nekiela jarraitu nuelako, josi eta josi. Orratza zauriaren albo batetik sartu, haria pasa eta beste aldean zegoen haragian ostera ere iltzatu, albo biak elkarri atxikitzeko haritik tiraka. Ez nintzen ezer esateko gai, ezin nituen Saiden kexuak aditu; kostata libratzen nuen noizean behin odola garbitzeko dorpeki nerabilen orratzaren bidean sartzen zen Saiden eskua.

«Kito!» adierazi zuen Saidek; eta lurrean jesarri nintzen, orratza Saiden hankan eskegita utzirik. «Oso ondo egin duzu, Maixabel, sendagile eredugarria izango zinateke» ziostan, artazi

txiki batzuekin haria moztu eta alkoholaz bustiriko gasa batez orratza garbitzen zuen bitartean. Ondoren lotura batzuk atera eta izterra bildu nion. Berehala odoleztatu ziren. Pitinka-pitinka neure senera itzuli nintzen. Said nire ondoan jesarri zen, alkandoraren poltsikoan zeraman egunkari zatia atera eta gordetzeko eman zidan: «Algecirastik alde egin beharko dugu» esan zuen, besoa nire lepo gainetik pasatu bitartean.

Zalantzak

Ahmeden bila joan ginen, Saiden lagunak utziriko etxera. Han genituen gauzak aitaren batean bildu eta segituan lotu gintzaizkion Madrilera joateko egin behar genuen 700 km-ko bideari. Isilkara egin genuen bidaia; minetan Said eta negar isilean Ahmed, posta kutxan aurkituriko egunkari zatiari so, zioena ulertzeko kapaz bailitzan.

Motorraren hotsetan galduta, pentsatzeari eman nion, ordu arte bizi izandako jazoerak bere neurrian aztertzeari, alegia. Bihotzari men egina ote nintzen, atzera ere? Zertan nenbilen, hamazazpi urteko marokoar harekin halako gorabeheretan sartzen? Ez ote zen nahikoa Saidi gertaturikoa, gelditu eta gibelera egiteko? Ez nintzen, horretara, hartzen ari ginen bidearen arriskuez ohartzeko kapaz?

Autoko ispilutik begiratzen nion maiz, atzealdean etzanda, zeharo zurbilduta zihoan gizonari errukiz; zeharka, eskuinaldean neraman mutiko isilari, bere barne oihua aditu nahian. Eta artez so egiten nion lastertasuna adierazten zuen

orratzari, arinegi joanez gero Guardia Zibilarekin aurrez aurre topo egiteko arriskua bertan zetzala jakinda.

«Madrilera heldu bezain laster –nire artean–, Asuni deituko diot, Saiden zauri hori begira dezan; eta gero... gero Poliziara joko dugu, mutikoaren istorioa kontatu eta haren arreba bila dezaten. Ez dut konplikaziorik nahi, aski da eta!».

«Polizia! Polizia! Baina zertan zabiltza, inozo hori? Zer egingo du poliziak Ahmed ikusi bezain laster? Hartu eta Marokora itzuli! Ez dute hango gobernuarekin inolako arazorik nahi izango, eta are gutxiago giza seme adingabeko batekin».

«Poliziak ez du arazorik nahi izango, ez horixe! Eta zuk? Zuk bai, zuk jende guztiaren arazoak konpondu behar dituzu, horretarako oso kapaz zara eta, ezta? Eta zureak, nork konpondu behar ditu? Zeinek aterako zaitu auzi honetatik harrapatzen bazaituzte? Eta Said? Begira iezaiozu! Ederrean sartu duzu».

Galga zapaldu nuen, bat-batean:

– Kafe hotza behar dut! –esan eta besterik gabe autotik irten nintzen, gelditutako lekuaren ondoan zegoen errepideko jatetxe hartarantz.

Said eta Ahmed bertan geratu ziren, nire jarrera ulertzera heldu gabe. Hamabost minutu geroago itzuli, eta ezer gertatu ez balitz bezala bideari lotu nintzaion berriro ere, bidaideei ezer esan barik.

– Zer duzu? –Saidek.

– Ezer ez! –erantzun nion, amorrua nagusitzen ari zaidanean ezin saihets dezakedan ahoskera zakar horrekin.

Ezaguna zen Saidentzat ere, hamaika eztabaidatan ezagutua baitzuen. Eta horregatik isildu zen, bazekielako horrelakoetan hobe dela nire gogoetetan uztea, nire barne bidea egin dezadan.

Kilometroak joan kilometroak etorri eta urduriago antzematen nuen neure burua:

Lotsarik ez duzu! Zinikoa! Urteak eman dituzu giza eskubideekiko begirunea lau haizetara zabaltzen eta, orain zer? Orain zuri dagokizunean, zer? Galga sakatu eta ihes egiten irteteko prest? Zer uste duzu ba, arazoak kafe bero batean desegin daitezkeela, izotz hormak bailiran?

Nazka-nazka eginda nago! Eta zergatik konpondu behar ditut neuk mundu honetako arazo-

ak? Ez al dira aski handiak neure-neureak? Utikan munduaren salbatzailea izateko grina! Utikan orojakile eta ahalguztidun izan zaitezkeelako uste hori! Utikan...

– Egarri naiz! –esan zuen ahapeka Saidek, une larriak bizitzen ari zela adierazten zuen tonu batekin.

Autoa gelditu eta atzeko aldean generaman botilaren bila irten nintzen. Eman egin nion. Dardarka ari zen eta izerditan blai zeraman alkandora. Izterraren inguruan ipinitako lotura ere blai zegoen, odoletan baino. Eskua ipini nion kopetan: sutan zegoen!

– Ospitale batera eraman behar zaitut!

– Ezta pentsatu ere! Ondo nago. Bero egiten du autoan eta horregatik nago izerditan, ez kezkatu! Segi aurrera, erdia baino gehiago egin dugu eta!

Kostatu zitzaidan Madrilera negar egin gabe heltzea; atzealdean su garretan deshidratatzear zegoela zirudien gizonaren auhenak, batetik, eta ondoan neraman mutilaren begitarte ilunaren garrasi isila, bestetik, ez aditzeko ahaleginetan. Kostatu zitzaidan buruan nerabilen nire bi Ni-en

arteko borrokan, justiziaren bandera ustez astintzen zuenaren alde egitea, justiziaren ustezko handitasuna neurriz kanpo puztea ere oso arriskutsua izan zekidakeela oharturik.

Baina heldu egin ginen, eta uste baino sendoago.

Saiden zauria aztertu zuen Asunek: ongi zegoen, ebakia garbia zen eta. Zauria araztu eta hurrengo egunetan hartu behar zituen botikak idatzi zituen paper batean. Lasaiago zegoen Ahmed, Madrilen handiak bidaiako beldurrak apur baten uxatu balitu bezala. Eta osatuago nengoen ni neu ere, justiziaren aldeko Ni-a berriz garaile baitzen.

Hutsaren hurrengoak

Hutsaren hurrengoak dira prostitutak, bai Madrilen bai Bilbon eta bai gura den lekuan ere. Prostituten aldeko sarekadak egiten direla iruditu ahal zaigu, noiz edo noiz Poliziak egiten dituen ekintzak direla eta; alegia, halako prostituzio sarea agerian utzi eta bertan behartuta zihartuten emakumeak euren «txuloengandik» aske laga dituztela plazaratzen denean. Baina, zer gertatzen da emakume horiekin albistea egunkarietan kaleratu eta hurrengo egunetan? Nora jotzen dute ordu arte horrenbeste jasan duten emakumeok? Bestelako lan bat eskaintzen diete? Gizartean besteok izan ditugun aukerak izan ditzaten laguntzen zaie, txitean-pitean komunikabideetan aireratzen diren gizarteratzeko egitarau ederren bidez?

Zer jazo zitzaien Casa de Campoko prostituzio sarea salatu zuten zortzi emakumeei? Tartean zegoen Jezabel? Horiek eta beste galdera batzuk buruan generabiltzala hurreratu nintzen Atzerritarren Auziei buruzko Madrilgo Brigada

Nagusiaren egoitzara, han argibiderik aurkituko nuelakoan.

Barregarria da (edo negargarria, agian), sartu eta ezkerreko horman *Mujeres de la vida* deritzon Jose Gutierrez Solanaren margolana topatzea: emakume ilun, aurpegi zigortuak, jantzi zantarrak soinean; hiria estaltzen duen zeru goibel eta hitsa; margolanari so egiten dionari buruz buru so egiten dioten begi belztuak, begiratu mindua; eta errukigabea, euren sufrimenduaren errudun sentiarazi nahi baligute bezala; betazal eroriak, ilea latz.

Baina are barregarriagoa da (edo negargarriagoa, agian), sartu eta bulegoz bulego ibili beharra, kaleko emakume zantar batzuez galdezka zatozela ozen eta nabari adierazten, bertan lan egiten duten guztien begiak zuregana ekartze aldera, sarrerako margolanari beha gelditzen dena bezain ergel.

«*Emakume galduak* –azpimarratzen dute irrimurriken artean– aurkitzeko lekurik txarrenera etorri zara» diote, «*halako urdangek* ez dituzte- eta polizien zirriak maite», irri gaiztoa, isekazkoa, ostera ere. Eta zuk, barrua kiskalita, han eta

hemen galdezka, halako egunean, halako tokian, halako emakumeek salaketa bat aurkeztu zutela eta horren arrastorik non edo non eduki behar dutela!

Eta *«agian»*, eta *«litekeena da».* Baina emakumeon benetako izenak jakitea oso zaila dela; eta *«badakizu zer-nolako emagalduak diren»;* eta...

– Ordubete eman dut, Said, egoera eramangaitz hari aurre egiten, polizia ustel horien artean nork lagunduko bilatzen. Ordubete pailazo horien tontakeriak entzuten, euren keinu lerdetsuak jasaten, begiekin biluztu nahi nindutela sentitzen.

– Tira, emakume...

– Tira?! Aizu, Said, isil zaitez! Isil zaitez edo zeuk entzun beharko dituzu kabroi horien aurrean isildu ditudan guztiak! Baina zer uste duzue? Emakumeak izateagatik horrela trata gaitzakezuela? *Bai, andereño; ez, andereño.* Horrela erabili naute denbora osoan; eta Jezabeli eta gainerakoei buruz itaundu dudanean: *urdangak, emagalduak, andereñoak* –niri esandako tonu berberarekin–, *putak...*

Said eta Ahmed mutu zeuden, nire hitzak eteten ausartu gabe, gainera zetorkien ekaitzari ahal bezala aurre eginez, nahiz eta haiek handik igarotzen ziren bidaiari errugabeak zirela jakin. Tarteka-marteka Saidi eta Ahmedi zuzentzen nizkien hitzok; beste batzuetan, leihora hurbildu eta, kaletik pasatzen zirenei entzunarazi nahi banizkie bezala, ele eta ele segitzen nuen.

Saidek, sofan, hanka bi kuxinen gainean jarrita, zerbait xuxurlatu zion Ahmedi, leihoaren ondoan nengoela. Ahmed zutundu eta sukaldera joan zen, handik baso bat ur zekarrela itzultzeko. Irribarre batekin eskaini zidan. So egin nion, haserre artean; gero, kolpetxo bat eman nion buruan, maitekiro, barrua baretzen zihoakidala sentituz.

– Poliziaren ustez –esan nuen, nire ohiko hizkera lasaian–, emakume haiena iruzurra izan zen. Askotan egiten ei dute: lanen bat bilatzeko behin behineko baimena lortzen dute, eta baimena baliorik gabe gelditzear dagoenean, elkartu eta horrelako salaketak egiten dituzte. Ondo irteten bazaie, bertan segitzeko baimena lortzen dute, auzia erabaki bitartean.

»Ez zuten euren helburua lortu, sarean harrapaturikoek haiekin barik, beste emakume batzuekin lan egiten zutela adierazi baitzuten. Horretara, iruzurra agerian utzia zela ikusi zutenean, berriro desagertu ziren, inolako zantzurik utzi gabe. Eta hara non, irtetera noala, auzoko harroputz batek deitu eta *andereño horietako batek Cuzco hotelaren inguruan bulego berria zabaldu duela* diostan!, inguruan zituen pailazo guztien barrea eraginez.

Ahmedek ekarritako edalontzia hartu eta beste trago bat hartu nuen, gibeletik ahora goratzen zitzaidan behazuna ito nahian, hura baino mingotsagoa eta minagoa ikuskizun genuela pentsatuz.

Arratsalde hartan bertan, Plaza del Solen hartu nuen metroa, Cuzco hotelera hurreratzeko. Cuatro Caminosko geltokian emakume bat sartu eta nire aurrean jesarri zen. So egin nion, aurpegian zeukan gehiegizko margo geruzak arreta eramanda. Kokotsa altxatu eta artez begiratu zidan, errukirik gabe. Hasieran lotsatu nintzen, haren

begi belztuen aurrean izuturik. Baina, astiro-astiro, buruz buru jarri nintzaion, aurpegi hark ere, Gutierrez Solanaren emakumeenek legez, errudun sentiarazi nahi ninduela frogatzeko.

Begi keinu bat egin zidan, kidetasunez, etsaitasunez bainoago. Esker irria eskaini nion, besterik gabe. Biok jaitsi ginen Cuzco hoteleko geltokian, haren ibilera paregabeari jarraikiz: zapata takoidun garaiak, gona motz estua, gerruntze beltz are estuago ezkutatzen zuen larruzko jaka zuria; hankak desiragarriagoak egiten zituzten galtzerdi ilunak, haren zangoen luzean emakume biluziak irudikatzen zituztenak. Liraina, benetan!

Kalera irten eta hotelaz bestaldeko espaloirantz jo zuen, eder, inguruan igarotzen ziren guztiz gehienen arreta bereganatzen. Hotelaren atearen ondoan geratu nintzen, aurrean nuen ikuskizunak gatibaturik: emakume saldoa, elkarren artean bost-hamar metro, kalean gora eta behera, hurbil-hurbiletik igarotzen zitzaizkien autoei keinuka; autoak etengabe gelditzen, baten ondoan, bestearen alboan... Joan, gizona bakarrik, beste baten bila-edo... garestiegia non-

bait. Edo, merkatuan legez, tratua egin eta igo, ordu erdiren buruan ostera ere lehengo kale kantoira itzultzeko.

Segituan erreparatu nion motor batean gora eta behera zebilen gizonari. Praka motzetan zihoan, udako elastiko gorri batekin. Emakumeak antolatzen ziharduela antzematen zen, nahiz eta itxurak egiten zituen. Ikusten bazuen emakume bat, autoak hurbildu eta hurbildu arren, denbora luze ematen zuela bezero horietako batekin *traturik* egin gabe, berehala alboratu eta kargu hartzen zion, egiten zituen keinuek duda izpirik ez baitzuten uzten. Aski zen: hurrengo autoko bezeroarekin joaten zen emakumea.

Ordu erdi edo eman nuen emakumeen joan-etorri etsigarriari begira, txundituta. Orduan, niregandik hamar metro eskasera zegoen kale kantoira heldu berri zen auto baterantz jo zuen motorrean gora eta behera zebilen putazainak. Bi gizon jaitsi ziren autotik eta harekin hizketan hasi ziren, behin eta berriro hogeita bost metro gorago zegoen emakume bati buruz ari zirela nabarmen uzten zutelarik. Putazaina emakumearenganaino hurreratu eta motorrean igotzeko

esan zion, hotelaren ondoko kale kantoian zain zeuden bi gizonengana eramateko.

Hizketan ikusi nuen gizonekin, burumakur, esaneko. Gizonek bertatik bertara hitz egiten zioten, hurreratze harekin emakumea izutzea bilatuko balute bezala. Artegaturik zirudien, gizonengandik bereizteko etengabe mugitzen zeneta; alferrik, hala ere, gizonak gain-gainean jartzen baitzitzaizkion, higitzeko espaziorik utzi gabe. Putazainak hurbiletik begiratzen zien, erabat hurreratu barik, hala ere. Gero, alde egiteko keinua egin zioten emakumeari: putazainarengana joan, motorrean igo eta *lantokira* itzuli zen, esangin.

Gizonak autora itzultzeko biratu ziren, eta orduan ikusi nuen aurpegi hura: Brigada Nagusiko egoitzatik irtetear nengoela garrasi egin zidan habuintsu bera zen! *«Andereño horietako batek Cuzco hotelaren inguruan bulego berria zabaldu du»* entzun uste nuen atzera ere. Joan egin ziren.

Hotelera sartu nintzen, kafetegira, eta interesatzen zitzaidan kalea ondo ikusten uzten zidan leku bat aukeratu nuen, leihoaren alboan. Telefonoa hartu eta Saidi deitu nion:

– Said? Maixabel naiz. Cuzco hoteleko kafetegian nago eta uste dut ordu batzuk eman beharko ditudala berton.

– Zer ba?

– Badirudi aurkitu dudala informazio gehiago ematerik baduen emakume bat; baina, itxuraz, berandu arte jardun beharko du lanean.

– Zer emakume da?

– Oraindik ez dut berarekin hitz egin. Prostituta bat da.

– Eta zergatik uste duzu emakume horrek izan dezakeela gure intereseko zer edo zer?

– Barne zirrara bat izan da, besterik gabe. Baina, lepoa egingo nuke zuzen nabilela. Zergatik ez zara hona etortzen, taxi bat hartuta? Gaua luzea izango da eta hobe biok elkarrekin igarotzen badugu, berton afalduz edo.

– Ondo da. Ordubete barru izango naiz han.

Hamaikak zuzen ziren Said heldu zenean. Afaria eskatu eta mahairatu bitartean, bertan ikusitakoa kontatu nion. Harrituta gelditu zen. Begiratzen ari nintzen emakumea ez zegoen artean, *lantxo* bat egitera joan berria zen eta. Hogei minutu geroago etorri zen.

– Afrikarra da! –esan zuen Saidek ikusi bezain laster–, marokoarra, ziur asko.

Afaldu eta kafea hartu genuen, ondo patxadan, denbora pasan, hango eta hemengo gauzez kontu kontari, hara bildu gintuen auziaz nolabait ahaztuta, emakumearen joan-etorriak horregatik bistatik galdu gabe.

Kafeari kafea eman, eta horri beste kafe bat, hitz eta pitz, beti leihotik kanpora begira. Marmar hasi ziren kafetegiko langileak, gaueko orduak aurrera joan eta hantxe segitzen genuela ikusita, astegun hartan goiz etxeratuko zirelako uste ustelean etsita. Ordu bata zen kafetegiko nagusia hurbildu eta, ahal bezain goxo, itxi behar zutela adierazi zigunean.

– Nirekin etortzeko esango diot! – Saidek, bat-batean.

– Zer?

– Beno, ezin dugu gau osoa berton eman, ezta? Beraz, nirekin etortzeko esango diot; kontratatu egingo dut.

Ideia ona iruditu zitzaigun: zergatik ez berarengana joan eta bere *zerbitzuak* eskatu? Arinago amaituko genuke eta gainera inork ez gin-

tuen susmopean hartuko. Said hoteleko harrera lekura joan zen, gela bat eskatzeko. Ondoren, kalera irten eta emakumearenganantz jo zuen, artez, atzera begiratu gabe. Segundo batzuen bueltan gelako atean deika ari zen, ahalik eta arinen zabal nezan.

Txundituta geratu zen emakumea, gelan beste emakume bat aurkitzean:

– Barkatu, baina garestiagoa izango da –adierazi zigun deblauki.

Saidek sartzeko eta lasaitzeko hitz batzuk esan zizkion arabieraz. Nahasi eta aztoratu antzera higitzen hasi zen, gelako txoko guztietara begiratzen, zerbait (norbait?) bilatuko balu bezala.

– Zaude lasai –nik.

– Aizue, nik ez dut arazorik nahi.

– Ez da arazorik izango. Galdera bat egin nahi dizugu, besterik gabe. Gero, ordainduko dizugu eta lasai joango zara.

– Ez dut arazorik nahi! Ez dut arazorik nahi! –esan eta esan, erotu bailitzan.

Saidek, arabieraz ostera ere, zerbait xuxurlatu zion, sorbaldetatik eusten zion bitartean.

Ohean jesarri zen, leihoari begira. Sareta jaitsi nuen, irekita egoteak artegatzen zuela iruditu zitzaidalako. Saidi behatu zion, lehenengoz; eta niri, gero.

– Zuek zarete behin egin genuen salaketaz itaunka zabiltzatenak, ezta?

Guk, baietz.

– Poliziak ziren duela hiru bat ordu zuregana hurbildu diren bi gizon horiek, ezta?

Hark, baietz.

– Eta?

– Ez dakit nortzuk zareten, ez eta zer gura duzuen ere, baina gizon horiek serio mehatxatu naute, isil-isilik egon nadin. Aizue, nik ez dut arazorik nahi! Gustura nago hemen, lan hau nahi dudalako egiten dut, inork behartu gabe, diru piloa lortzen dut eta primeran bizitzeko ematen dit –orpoz orpo lotzen zituen hitzak, lastertasunak sinesgarriago egingo balu bezala–; gainera, laster utziko dut kalea. Gizon bat ezagutu dut, gizon errespetagarri bat, eta kaletik aterako nauela agindu dit. Nik...

– Barkatu –eten nuen–, salaketa egin zenutenen artean, bazegoen Jezabel izeneko neska gazte bat?

Isilik gelditu zen, jota antzera, gero eta urduriago. Orduan negarrari eman zion, barrua erretzen zion sekretuari bide emanez: ezetz, buruaz; ezetz, hitz totelka, negar zotinen artean; eta barkatzeko eskatu zion Jezabeli, bertan bailegoen.

Ur handiak

Etxera itzuli ginen, pozik; gutxi iraun zuen poz hark, hala ere. Etxera heldu eta atea irekita topatu baikenuen. Kontu handiz bultzatu nuen, ilun zegoen eta ez zen ezer entzuten.

– Maixabel! –deitu zidan ondoko atetik bizilagunak–. Gizon batzuk egon dira zure etxean, dena hankaz gora ipini eta bertan zegoen mutila eroan dute. Hauxe eman didate zuretzat, eta Poliziari ez deitzeko agindu didate.

Bizilagunaren eskuak erakutsiriko gutuna hartu nuen, eskerrak eman eta lasai egoteko eskatuta. Etxean sartu ginen, anabasa zen: altzariak hautsita edota urratuta, hormako margoak lurrean botata, telebista ere zoruan; sukaldeko ontziteria zeharo barreiaturik, nire gela ere guztiz suntsitua... Negarrez hasi nintzen, eskuan neukan gutuna indarrez hartuta.

Saidek sorbaldatik heldu eta kontu handiz kendu zidan eskutitza; sofara eraman ninduen, gainean zegoen argi ontzia kendu eta jesartzeko erregutu zidan. Gutuna zabaldu zuen:

Ur handietan igeri egiteko, ondo jakin behar da igerian; bestela... Mutil ederra duzue etxean gordeta. Ezagutzen ditut nik horrelakoak atsegin dituzten gizon dirudunak eta seguru prest egongo direla, denboralditxo goxagarri bat igarotzearren, ondo ordaintzeko.

Baina, badut zuei zer eskaini, gizon boteretsu horiengana jo aurretik; eta agian, izango dugu zertan konforme gelditu, ezta?

A! ia ahaztu egin zait, badaukat lagun bat Algecirasen, zuekin zor bat duela dioena. Kontuz gero, gizon gaiztoa da El Moro!

Kafe ona, El Retiroko urmaelaren ondoko kafetegikoa.

Lasaigarri bat hartu nuen botika kutxatik; ondoren, nire gelara joan eta lurrean barreiaturik zeuden gauza guztien artean bilatu nuen poltsa marroia: jaso eta bertan gordetzen nuen pistola atera nuen, Saiden begirada harrituaren aurrean.

– Nazka-nazka eginda nago!

Saidek ez zuen ezer esan, bere bularraren kontra estutu eta ileak musukatu zizkidan, maitasunez.

– Goazen!

Hogei minutu behar izan genituen Retirora heltzeko. Ate nagusiak katea zuen loturik, irekita alabaina. Igartzen zen baten batek zabaldu eta, itxurak eginez, berriro jarria zuela, begien bistan itxita irudi antzera. Atea bultzatu eta bideari lotu nintzaion, ordurako amataturik zeuden argien artean. Laster antzeman nuen argi bat neure aurrean, urmaela zegoen lekuan.

– Berandu zatoz! –gizon baten ahotsak. Autoaren argi indartsuek itsutzen ninduten eta ezinezko egiten zitzaidan atzean ezkutatzen zen gizona ikustea–. Zoaz urmaelerantz! Ez atzera begiratu gero, tiro bat hartu nahi ez baduzu.

Urmaelera hurbildu nintzen, astiro-astiro, aurrean zenbait oin hots entzun eta inguruan antzemandako laguna espazioan kokatu nahian.

– Igerian jakin behar da, laguna, ur handietan igeri egiteko.

Bat-batean gelditu nintzen, ur gainean zerbait sumatu bainuen. Gorpu bat zegoen, ahoz behera, ertzetik metro erdira. Ezin nuen behar bezala ikusi.

– Kabroiak! –itzuli nintzen amorruz autoa zegoen alderantz–. Kabroi alaenak!

Uretan sartu nintzen, gorpuaren bila joateko: harengana heldu eta ahoz gora ipini nuen.

– Nazkagarriak! –egin nuen garrasi, Adele, ordu batzuk lehenago hoteleko gelan gurekin egon zen emakumea, ezagutzean–. Zergatik? Zer egin dizue emakume gaixo honek, horrela akaba dezazuen. Zergatik?

– Ez zekien igeri egiten eta... Tira ba... hitz egin dezagun.

– Nik ezagutzen zaitut, kabroia, ezagutu egin zaitut! –esan nion herraz, polizia haren ahotsaz ohartuta–. Luis Angel Serrano zara, Brigada Nagusiko polizia ustel hori.

– O, o, o! Bide txarretik zoaz, andereño.

– Ez deitu andereño, kabroia!

– E, e, e! Zaindu, zaindu hitzok. Komeni zaizu eta. Amatatu argi horiek! –agindu zuen halako batean–. Ezagutzen banauzu, ez dago ezkutaturik egoteko arrazoirik, ezta, andereño? Edo..., barkatu, zelan deitu behar dizut?

– Maria Isabel Kortajarena naiz eta abokatua nauzu. Uste dut bide txarretik zoazela, orain arte

eman ditudan pauso guztiak nire artxiboetan erregistratu baititut eta, pentsatuko duzunez, bertan azaldu dut zehatz-mehatz zurekin eta zure lagunekin izandako elkarrizketa. A, eta baita zeuk emakume gaixo horrekin izandakoa ere, noski. Suposatuko duzunez, honezkero leku seguruan daude paperok.

– Beno, beno, beno; emakume ausarta, lirainaz gainera. Ez naute zure paperek kezkatzen. Zaude lasai, horregatik bada, Maria Isabel Kortajarena. Atera ezazu mutikoa! –agindu zion berarekin zegoen morroiari.

– Ahmed, ça va?

– Ça va bien.

– Ça va bien. Ça va bien. –iseka poliziak–. Bota ezazue txiklea ahotik eta hitz egin behar bezala! Ea ba, ikus dezagun mutikoak igerian dakien.

– Ez! –oihukatu nuen–. Tratu bat egingo dugu, zuk esan bezala. Esan zer nahi duzun eta eman egingo dizut.

– Ondo, ondo, ondo; orain hasi gara bide zuzenetik joaten, Maria Isabel Kortajarena. Esan, beraz, zer dela eta zabiltzate urdanga horiek sa-

laturiko auzi-mauzi horren bueltan kuxkuxean eta usainka?

– Ustez, salaketa egin zuten emakume –eta indar berezia ipini nuen azken hitza ahoskatzeko–, emakume horien arteko bat, mutikoaren arreba zen. Haren bila gabiltza.

– Izena?

– Jezabel.

– Ur handietan segitzen duzu gero. Begira, andre, hobe duzu kontu hori ahaztea, mutila bere herrira itzul dadila eta zu zeurera.

– Gu ez gara inora itzuliko, Jezabelekin eta bere alabarekin ez bada.

– O, o, o! Andereño, andereño, bide txarretik, berriro ere. Begira, Jezabel eta bere alaba ez dira, ez dituzu sekula izen horiek entzun. Ez zuk eta ez nik. Galdetu Algecirasen. Inork ez dizu haien berririk emango. Galdetu hemen, gure brigadan. Inork ez ditu ezagutzen. Ez dira. Sekula ez dira Espainiara etorri, eta inoiz Marokotik irten baziren, itsasoak tragatu zituen.

– Baina badira. Bada, hasteko, haren neba; bada, gero, hura Algecirasen ezagutu zuen lagun bat, Fatima jaio zen ospitaleko agiria helarazi di-

guna; bada, amaitzeko, berarekin bizi zen marokoar emakume hau, nahiz eta orain hil duzuen. Gauza gehiegi dira, bi lagun aitaren batean desagerrarazi nahi izateko.

– O, o, o! gero eta txarrago, andereño, gero eta okerrago. Erakutsi igeri egiten, Felipe.

Brastakoan itzuli zen Ahmed besotik helduta zion gizonaren aurka eta, ustekabean harrapaturik, kolpe gogor bat eman zion potroetan. «Hona!» oihukatu nion Ahmedi, eraman nahi nuen alderantz jarrai ziezadan: ate nagusirantz, Said, bideko sastraken artean lekuko eta begirale, zegoen lekurantz. Tiro egin zuen Saidek, gizonak lurrarekin berdintzera behartuz.

– Mugitzen bazarete, zulo eder bana egingo dizuet kasko itsusi horietan!

Atetik irten eta autotik harturiko giltzarrapoa lotu genion atea ixteko kateari. Ondoren, autora heldu eta ziztu bizian irten ginen, Madrilgo Castellana etorbidean aurrera, ihesean. Hala eta guztiz ere, Madril utzi baino lehen, esku egokietan laga genuen Saidek bertatik bertara grabaturiko kasetea eta neure txosten guztiz argigarria. Lipartxo bat ere hartu nuen, Bilbon hiru urte le-

henago baztertu nuen arazo baten gainera itzul-
tzeko, gutun bat aurrez bidaliz.

Bost arrosa

Axpeko Mendi Goikoan elkartu ginen, bost urte aurrerago egin bezala; oraingoan, aldiz, Mikelek gonbidatuta. Amore eman nuen haren gogo biziaren aurrean eta, zergatik ez onartu, neure baitan ere irrika zebilkidalako.

Haizetsu zebilen eguna, haizea pitin bat gogaikarri egin arte ibili ere. Mikel baino apur bat lehenago iritsi nintzen eta, gustuko nuen bezala, Anbotora begira jarri nintzen, bere handian galtzen nintzela sentitzeko. Atsegin nuen begiak narras eramatea, mendi mazeletan behera, apurka, gero eta arinago, begiratua arrapaladan zihoala sentitu arte. Zorabioa nabaritzen nuen, eta begiak kolpe batez ixteko behar bizia sentiarazten zidan.

Gero, astiro, berriro zabaltzen nituen begiak, oraindik puntu argidunak betazalek ekarririko itzalekin borrokan zirela, eta ostera ere begiratzen nion guztiz nagusi egiten zitzaidan tontorrari. Berriz nabaritu nituen garai bateko zirrarak,

beste garai hartan bizi izandako indar berberarekin.

Heldu zen Mikel. Autoa aurrerago uztera zihoala ikusita, azken arnasketa sakona egitea erabaki nuen, ondoren neure baitara biltzeko. Irribarretsu ailegatu zen, eskumako eskua gerriaren atzean ezkutaturik, opariren bat zekarkidan guztietan egiten zuen bezala. Atsegin ninduen eta horrelaxe jakinarazi nion bost arrosa haiek osaturiko sortatxoa erakutsi zidanean. Bost arrosa gorri; behinola neuk oparitu nion Four Rouses izeneko whisky botilaren ordainean, agian.

Jatetxean sartu ginen, eta denbora atzera zihoala sumatu nuen, urteak joan urteak etorri, berarekin han afaldu nuen egunera heldu arte. Eta mendi hegalean begiak nola, horrela hauteman nuen gogoa; harik eta begiak indarrez itxi eta apurka, oraindik puntu argidunak betazalek ekarririko itzalekin borrokan zirela, zabaldu nituen arte. Eta, aspaldiko hartan bezala, jatetxearen hondoko hormaren ondoan zegoen mahaira eraman gintuen zerbitzariak.

Mikeli behatu nion, artez, lotsarik gabe, begiratua ezkutatzeko ahaleginik egin barik. Isilik az-

tertu nuen. Jarrita zeramatzan behinola bion artean erosi genituen betaurreko biribilak, interesgarriago egiten zuten haiek, alegia. Begi beltz biziak, hala ere, guztiz nabari agertzen ziren behin eta berriro garbitzen zituen kristalen barrena. «Barkaezina litzateke begi ederrok kristal zikin batzuen atzean ezkutatzea» esaten zidan betaurrekoak sarriegi garbitzen zituela esaten nionean, urduri ipintzen ninduela olgetan-benetan adierazten nionean. Ezpain haragitsuak zituen, bustiak beti, eta atzean ea betaurretako kristalak legez zaintzen zituen hortz zuriak ostentzen ziren, lotsatu samarrak, nonbait. «Zenbat kostatzen zaizun irribarretxo bat eskaintzea! Norentzat gordetzen duzu hortz ederron dirdira?» erregutzen nion serioegi zegoela begitantzen zitzaidan bakoitzean. Ederra iruditzen zitzaidan Mikel, oraindik ere.

– Leku batzuk ez dira inoiz aldatzen, ezta? –eten zuen nire barne gogoeta–. Penagarria da, sentimenduak lekuak baino aldakorragoak izatea.

– Mikel, nik...

– Ez, ez; utzi horrela, hobe da eta.

Jatekoak-eta aukeratu genituen, aukera hark arestian sorturiko tentsioa lasaitzeko eman zigun betari eskerrak emanda, neure barnean bederen.

– Aztarnaren bat aurkitu dudala uste dut.

– Non?

– *Kateme Beltza* izeneko pub batean. Ernesto horren arrastoari jarraitu diot eta bera sartuta dagoen negozioetako bat da taberna hori. Bart haraino hurreratu nintzen eta bertan lan egiten duten emakumeekin jardun nuen, berbetan. Haien artean Kizzy izeneko bat topatu nuen. Berarekin hitz egiten hasi nintzen, kopatxo bat hartzen genuen bitartean; bat-batean Jezabel aipatu eta, Kizzy delako horrek ezetz erantzun bazidan ere, berehala ohartu nintzen urduritzen hasia zela, barraren barru aldean zegoen Caroline izeneko beste afrikar bati begira eta begira. Errontegiko pisu batean bizi dira eta, jakin dudanez, orain dela urte erdi-edo, hiru afrikar bizi ziren hor, eta hirugarrena inor agurtu barik desagertu zen, bizilagunei kasu egitera.

– Eta?

– Emakumeak pisutik noiz irtengo zain izango naiz gaur gauean, sartu eta barrukoa arakatzeko.

– Kontuz ibiliko zara, ezta?

– Galdetzea ere!

Lehen jakiak amaituta bigarrenen zain geldi-tu ginen, atzera ere isilik. Mutualdi lasaia zen, haatik. Mikelek askotan esaten zuen bezala, benetako lagunekin isilik eman daiteke denbora, isilean ere gustura egoteko lasai. Ezagunekin edota ustezko lagunekin urduritzen da jendea, isiltasuna deseroso egiten delarik, batak besteari zerbait esateko beharturik sentitu arte. Horrelakoetan, Mikelek zioenez, meteorologo bilakatzen gara guztiok, eguraldiaz ele eta ele hasten garelako, egoerak sortzen digun ezinegon horretatik babesteko. Isilune lasaia zen gurea, gustuko egoera horietakoa, nabari.

– Gaur luze hitz egin dut Ahmedekin –ekin zion Mikelek, bigarren platerak ekartzearekin batera–. Mutil bizia eta azkarra da. Ramadanaz egin dit berba. Kultura bitxia da hori! Egundoko jaia antolatzen dute *ftur* delakoan; alegia, barauaren amaieran. Egun osoa barau eman os-

tean, *adana*k otoitz egiteko deia egiten du, *medina*ren gainean nagusitzen diren *alminare* guztietatik lau haizetara zabalduz. Jaiaren hasiera da: etxeetan, mahaiaren inguruan; kafetegietan, etxetik kanpo daudenentzat.

»Koranak agintzen duen legez, «Goizaldian, hari zuri bat hari beltz batetik bereizterik dagoen unetik bertatik», ezin dute jan, ezin edan, ezin erre eta ezin sexu harremanik izan, harik eta gaua nagusitzen den arte. Baina harago doaz, ezin pentsamendu txarrak izan, edo nahi debekatuak; ezin gezurrik esan, edo kritikarik egin; ezin muxindu, ezin... Hau da, gorputza eta izpirituaren garbiketa bilatzen da, aldi berean. Salbu gelditzen dira bidaiariak, umeak, zaharrak eta emakumeak. Hara!

Gustura ziharduen Mikelek, mokadurik galdu gabe, horregatik. Sinesgaitza zen Ahmed ezagutu zuen egunean izandako portaera arras arrazista haren parean, azken egunotako adiskidetasun hazkorra ikustea.

– Ez dira delinkuenteak, Mikel! –ihardetsi nion egun hartan, Ahmedi *delinkuente txikia* deitu zionean–; delinkuenteak beste batzuk dira,

euren herrietako arazoetatik ihesean doazenez baliatzen direnak, alegia. Etorkinen trafikoa ia ez da zigor kodean agertzen, eta aipatzen denean oso modu apalean zigortzeko izaten da. Mafietako nagusiak harrapatu eta egun batzuen buruan kalean berriro, oso zigor ahulak ezartzen dizkietelako.

– Eta ez litzateke eragingarriago izango Ceutako Gobernuak bere mugak sendotzen gastatu dituen 5.500 milioiak, etorkinen herrialdeetan erabiltzea? –esan zidan Mikelek, arazoa beste alde batera eraman nahian.

– Jakina, jakina, horra humanistaren diskurtsorik topikoena –erantzun nion gero eta haserreago–. Neu ere horren alde jartzen naiz gero! Egia da, Magrebeko arazoa diru sarrerekin konpontzen da; baina, belu da oso. Zenbat denbora behar da inbertsio horiek egiteko? Espainia, Europa, mundua oso berandu dator. Une honetan, Ceutan, Afrikako 22 herrialdetako etorkinak biltzen dira. Hasiera baino ez da.

– Oker zaude, Maixabel, ostera ere oker. Ez duzu ikasi eta ez duzu ikasiko. Espainiak ezin du lan bila datorkion legez kanpoko etorkin aldra

hori hartu. Edo euren herrialdetan sortzen dira lanpostuak edo akabo; edozein unetan eztanda egin dezake jendeak, lanpostuak galdu eta mairuei ematen zaizkiela ikusita.

Min handia eman zidan «mairuei» esatean egin zuen keinu arbuiagarriak, «ez duzu ikasi» hark baino gehiago. Zutundu eta neure indar guztiekin ihardetsi nion, oihuka eta kontrolik gabe:

– Itsu zaude! Ez duzu ikusi nahi! Horren zaila da marra argi hori antzematea; alegia, gosez hiltzearen eta bizi ahal izatearen arteko marra garbi hori. Ba marra hori, Mikel, lan bat da, lan ziztrin bat!

Min handia eman zidan baina, beste Mikel bat zen Mendi Goikoan aurrean neukana, Ahmedez eta ramadanaz goxo-goxo mintzatzen. Garai batean maitemindu ninduen Mikel ekarri zidan gogora une hark, eta berriro maitemintzeko prest egon nintekeela pentsatzera ere heldu nintzen, lipar batez izan bazen ere.

– Nor da Said? –galdetu zidan halako batean; trumoiak ekaitza nola, hala iragarri zuen galdera hark gure artera zekarren eztabaida.

– Zer esan nahi duzu?

– Bada, horixe; ea nor den Said zuretzat.

– Lagun ona da Said, baina nahiago nuke horretaz hitz egingo ez bagenu.

– Eta zergatik ez? Zergatik ezkutatu behar didazu berarekin duzun harremana? Zer uste duzu, ez naizela egoera hori gainditzeko kapaz? Neuk ere beste emakume batzuk ezagutu ditut eta ez naiz horregatik lotsatzen!

– Mikel, jendeak begiratzen digu. Hobe dugu gai isiltzea. Gainera, ez da zuk uste duzuna.

– Eta zer da bestela? Lotsa ematen dio Maixabeli, etorkinen lagunari, haietako batekin maitemindu dela esateak?

– Horrela segitzen baduzu, zutundu eta alde egingo dut!

Eraginik izan zuten azken hitzok Mikelengan, edalontzian zuen ardo beltza trago bakar batez edan eta lasaitu egin zelako, itxuraz bederen. Ozpindu egin zen giroa, hala ere. Handik aurrera meteorologo bihurtu ginen, biok ala biok.

Eta, une bakar batean izan bazen ere, prest egon nintzela aitortu behar dut. Prest egon nintzen Saidez hitz egiteko, haren homosexualita-

teaz mintzatzeko, Mikel eta bion artean sakonduz zihoan konfiantzazko giroan. Eta prest egon nintzen, hala uste dut behintzat, ostera ere maitemintzeko.

Bilbora bidean

Lerman ostatatu ginen, hirurentzako gela batean. Jota geunden, gorputzez eta animuz. Lo egin behar genuen, edo saiatu behintzat, hiru ordu lehenago bizi izandako jazoerek etengabe kolpatzen baikintuzten. Segituan lokartu ginen, nekea antsiari nagusitu zitzaiola.

Biharamunean esnatu eta irratia piztu genuen, aurreko gauean gertatutakoek eta Madrilen utziriko txostenak espero genuen ondorioa izan zutenentz jakiteko. Pozaren pozez entzun genituen gau hartan bertan egindako atxiloketen berri: «Polizia Nazionalak Atzerritarren Auzietarako Brigada Nagusiko polizia bat eta haren laguntzailea, pub baten jabea, atxilotu ditu bart, ustez Cuzcoren inguruan lan egiten zuen prostituta baten heriotzarekin zerikusia dutelakoan. Atxiloketok goizean goiz egin dira, Madrilgo epaitegi nagusietan LAS siglekin ezagutzera eman den poliziaren eta ezkutuan gorde den emakume baten arteko elkarrizketaren transkripzioa jasotzen duten paperak, emakume ber-

berak egindako txosten baten kopiarekin batera, aurkeztu ostean. Esandako polizia, antza denez, Afrikako emakumeen trafikoari loturik dago».

Dutxa hotz bat hartzera sartu nintzen. Plazerrez nabaritu nuen ura nire adatsa blaitzen hasia zela eta gorputz osoa bustitzen zidala. Laket sentitu nuen ur joana bularretan igarotzen, sabelean behera hanketan galdu arte. Biratu nintzen, uraren masaje freskagarria ordu batzuk lehenago tinkaturik zeuden bizkar giharretan nabaritzeko, haiek ere lasaitze ederra merezi zutelakoan.

Plazerrezko hamar minutu izan ziren.

Berriro ere autoan, «Bilbon, zer?» galdetu zidan Saidek, han nondik nora jotzeko nahiko daturik ez genuelakoan. Adelek emandako informazio eskasa zen genekien guztia. Haren bidez jakin genuen Jezabel ez zela izan Madrilgo salaketa aurkeztu zuten emakumeetako bat; hala ere, salaketaren ondorioz, gogortu omen ziren prostituten bizi baldintzak, jasanezin bihurtu arte. Giro hartan, emakume askok hanka egitea erabaki zuen, aukera gehiegi edo nora joan ez bazuten ere. Jezabel, Adeleren ustez, Bilbora joan zen. Berarekin lan egiten zuen emakume

baten bidez izan zuen Jezabelen berri. Emakume horrek Bilbon lan egiten zuen, kalean, noski. Bilbotik Madrilera etorrarazi zuten, Bilbon jokorik ematen ez zielakoan. Emakume hura Ernesto izeneko ertzain batentzat ari zen, eta, haren esanetan, harentzat lan egiten zutenen artean bazegoen Jezabel zeritzoten bat.

Horixe zen genuen informazio guztia. Hori eta Mikel. Bera zen, nire kalkuluen arabera, Bilboko giro beltz hartan argi apur bat eman zezakeen bakarra, behin baino gehiagotan ibili baitzen mundu horren karkabetan, haietan ezkutaturik, gure gizartearen aurpegirik itsusiena erakusten, aberasten zirenei mozorroa kentzen.

«Bilbon, Mikelekin hitz egingo dugu» esan nion Saidi. «Nor?» galdetu zidaten bere begiek. Orduan, beste garai batean jazotakoak kontatu nizkion. Saidek bazekien Bilbon izan nintzela lanean, eta handik joan behar nuelakoan heldu nintzela Madrilera. Hala ere, lehen aldiz zabaldu nion Mikelekin izandako harreman gazi-geza.

Mingarria zitzaidan harengana joan beharra; baina, zalantzarik ez nuen, inon guri lagun ziezagukeenik bazegoen, bera zen pertsona hori.

Malko bat etorri zitzaidan ezkerreko begira, ausart, baimenik gabe; baina berehala ezkutatu nuen –malkoa ala haren zergatia?–, irekita neraman leihoa brastakoan itxi eta kanpotik zetorkidan haize goiztiarra aitzakiatzat hartuta.

Mikel ikertzaile ona zela kontatu nien, bai eta ikertzaile senari esker hainbat kasu argitu genituela ere, nahiz eta gero ospea berak bakarrik eraman. Abentura eta arriskua maite zituen, eta batez ere berak «iturginak» zeritzenak izorratzea. «Horiek iturginak dira –esaten zidan askotan–, etxeko lan zikinak konpontzera deitu egiten dietelako. Ez die axola eskuak zikintzeak, edota egituratik behar dena kentzeak. Sentimendurik gabekoak dira, diruzale amorratuak, nazkagarriak».

Berarengana jotzeko asmotan nindoan Bilbora, berarekin berriz elkartzea zail-zaila izango zela jakin arren. Prest nindoan, joan ere, nire harrotasuna baztertzeko eta haren aurrean umil agertzeko, hark aukera emanez gero.

Saidek eta Ahmedek bere herriko kantak abestu zituzten azkeneko kilometroetan, nire barruan hazten zihoan itolarria areagotu zuten kan-

tak, hain doinu malenkoniatsua zuten. Abesti ederrak, nolanahi ere, basamortuko bizitzaren gogorraz zihardutenak: han-hor-hemen, etengabe lekuz aldatzen, bizi den herri zahar ororen sufrikarioaz hitz egin eta behinola ezagutu zuten handitasuna oraingo belaunaldietara ekartzen zutena. Herri kantak.

Bilbora heltzen ari ginela iragartzen zuen seinalea ikusi genuen eta «Bienvenidos» irakurri zuen Ahmedek, Ceutara iritsi zen egunean ikusitakoaz gogoratuta, nonbait. Bilbo pasa eta Barakaldon sartu ginen Bide Onera plazan, ezkerretara hartuta, San Bizentera igotzeko. Guztiz aldatuta antzeman nuen jaioterria. Etxean sartuta telefonoa eskuratu nuen, Mikeli deitu eta ahalik eta azkarren gelditzeko asmoz.

Fatimaren lehen argazkia

Gaueko zortzi zortzietan irten ziren Kizzy eta Caroline Errontegiko pisutik, lanera bidean. Mikel zelatan zegoen atariaren aurreko tabernan, arratsaldeko seietatik. Emakumeak, Nafarroa kalearen behealdean ezkerretara jo eta Foru Pasealekuan galtzen zirela ikusi bezain laster hurbildu zen atarira. Atzazaletako margo arrosaz margoturiko txirrin bat zegoen, laugarren eskumakoa. Mikelek azken txirrina sakatu eta publizitatea banatzen ari zela esanda, mesedez zabaltzeko eskatu zion erantzun zuen andreari.

Barrura eta arineketan eskaileretan gora, laugarreneraino. Han, beste askotan erakutsiriko trebetasunaz baliaturik, segundo batean zabaldu zuen egurrezko ate ahula, kanpoan inolako arrastorik utzi gabe. Etxe txikia zen: bi logela, komuna, dutxa oinarri bat zuena; egongela eta sukalde estu eta luzea. Afrikako irudiek eta argazkiek alaitzen zituzten horma horiak.

Bi logeletan Kizzy eta Carolineren argazki batzuez gainera, baziren Mikelek ezagutzen ez zituen beste batzuenak ere: gizon-emakume edadekoak eta bi emakume gazte. «Etxekoak» pentsatu zuen, garrantzi handirik eman gabe. Egongelan, baziren beste emakume baten argazkiak. Batean gazte aldra baten erdian berehala ezagutu zuen Ahmed gaztea. Baina haren gainean zegoen beste argazki batek eraman zuen bere arreta: emakume baten kolkoan ume txiki bat argazki makinari begiratzen zion, begi handi beltzekin.

Argazkia hartu eta bizkar zorroan gorde zuen. «Honexek izan behar du Jezabelen gela» bere artean. Tiraderetan gauzak arakatzen hasi zen, izandako bihozkada baiezta ziezaiokeen froga baten bila. Telebista ondoko tiraderan, kartoizko karpeta urdin bat aurkitu zuen eta han, beste paper batzuen artean, Ceutako ospitalean erditu izana egiaztatzen zuten dokumentuak, bai eta Fatima izeneko neskatila baten osasun txartela ere. Den-dena sartu zuen zorroan.

Ondoko armairuetan bilatzen segitu zuen; baina, Jezabelen jantzitzat hartu zituen soineko

eta praka estu batzuk besterik ez zuen topatu. Ondoren, telefonoa zegoen mahaitxoaren tiradera zabaldu zuen, bertan zeuden telefono zenbakietan pistaren bat aurkitzeko asmoz. Helbide eta telefonoak idazteko liburuxka bat zegoen, hiru idazkera ezberdinez idatziriko zenbakiak eta izenak erakusten zituena. Gorde egin zuen. Hurrena, erlojuari begiratu, eta segurtasun arauek –«nork bereak ezartzen ditu» esaten zuen askotan– gomendatzen zituzten kautelazko hamabost minutuak betetzear zeudela ikusi zuen. Bizkar zorroa hartu eta kalera irtetera zihoala, liburu berde batek eraman zion arreta. Hartu eta eguneroko bat zela ikusi zuen, arabieratzat jo zuen idazkera ulergaitz batean idatzirik. Orduan bai, atea ireki bezain trebe itxita, kalera jaitsi zen arineketan.

Telefonoz deitu zidan biharamunean, eta etxera zetorrela esan:

– Fatimaren argazki bat daukat!

Irrikan geunden beheko txirrinak jo zuenean, hirurok egongelan bildurik, Enyaren disko bat

entzuten. Sastakoan oldartu zitzaion Ahmed, Jezabelen eta Fatimaren argazkia erakuts ziezaiola arren eskatzen, eta halaxe egin zuen. Mutilak bere bularraren kontra eraman zuen, ikusi eta berehala; eta otoitz egiten hasi zen, bere jaungoikoari eskerrak eman eta ondo gorde zitzala eskatzeko. Gelara joan zen, bakarrik egoteko beharra barru-barruan sentiturik.

Saidek Jezabelen egunkaria hartu eta orriz orri aztertzen hasi zen; Mikel eta biok, Jezabelen idazkera ezagutu ostean, berak idatziriko telefonoak arakatzeari ekin genion, hasteko Bizkaiko aurre zenbakia zutenak azpimarratuko genituela ebatzita.

Hautsi zait barrua

Algecirasen hasi zen egunkaria idazten, senarrarengandik banandu zutenean, ostera elkartutakoan bizi izandako jazoeren berri izan zezan hark. Fatimaren jaiotza eta bere lehendabiziko egunak bereziki samurrak ziren, bai eta Angelicarekin izandako harremanei buruzkoak.

Liburuaren orrien lehen herenari zoriona zerion leku guztietatik, bakarrik Hamiden espetxeratzeak eta zigor ez-dakigu-noiz-arteko hark iluntzen zituzten noizean behin Jezabelen egun eta gau zoriontsuak. Gutxi iraun zuen zoriontasunak, hala ere, eta berehala hasi ziren neskaren kezkak agertzen.

Saidek hiru atal aukeratu zituen, gure ikerketarako argigarriak izan zitezkeelakoan, nahiz eta behazuna eta mina zabaltzen zuten irakurtzen zituztenen artean. Algecirasen, Madrilen eta Barakaldon datatu zituen, hurrenez hurren.

«Gaur berriro itzuli da. Gero eta denbora gehiago ematen du niri beha, eta ez du plantak egiteko inolako beharrik izaten: igartzen da

hemen jende guztia dela haren beldur. Ez naiz umea bakarrik uzten ausartzen, hain da izugarria Juan Garciaz esaten dena.

Angelicari kontatu nahi nioke den-dena, baina ez naiz ausartzen. Zer egingo luke berak? Ni lasaitzen saiatu? Alferrik! Edo nagusiarekin hitz egin eta nire kezkak azaldu? Jaramonik ere ez lidake egingo, Juan Garciaren lagun mina da eta.

Haurraren ondoan ematen ditut orduak, baina ezingo naiz luzaroan horrela ibili, zoratzeko moduko egoera da eta. Ihes egitea ere otu zait; umea txikiegia da, baina. Ene senar maitagarri hori, hemen bazeunde, ni lasaitzea ez ezik, zer egin maisuki erabakiko zenuke.

Algecirasen, 1996ko urtarrilaren 30ean».

Pasarte hark ihesaren susmoa indartu zuen gure artean. Eta horrelaxe agertzen zen lau egun geroago idatziriko beste pasarte batean. Jezabelek ezin izan zuen Juan Garciarena eraman, hain handia zen hari zion beldurra. Gainera, gero eta hurbilago, gero eta itogarriago bilakatzen hasi zen gizon haren ibilera, jazarpen eramangaitz bilakatu arte.

1996ko otsailaren hasieran ihes egin zuen Etorkinentzako Harrera Etxetik, arrastorik utzi gabe. Goizean goiz irten zen autobus batean sartu eta Madrilera joan ziren, handik Angelicari eta senarrari idazteko asmoz.

Madrilen, baina, nora joan eta umea zelan elikatu ez zuelarik, diru eske jo zuen etorkinei «laguntzen» jarduten zuen gizon batengana, hango emakume batek gomendatuta.

Gizon hark, zalantzarik gabe, lagunduko ziola esan zion, dirua eta aterpea emanez. Gero, baina, benetako asmoak ulertu zituenean beranduegi zen, preso bilakatua baitzen.

Gauzak okertuz zihoazen: senarrari eta lagunei bidalitako gutunak ez ziren sekula postetxera heltzen, egiten zituen mugimendu guztiak kontrolpean baitzeuden, hartara bereziki jarritako gizon petral baten begirada nazkagarriaren azpian. Madrilen emandako hiru urteen egoeraren gogorra eta gordina antzeman daiteke Saidek itzuliriko orriotan:

«Noraino hel daiteke gizakiaren basakeria, Jauna? Jauna? Eta zergatik mintzo natzaizu? Akaso ez nauzu nire patu gordinean bakar baka-

rrik laga? Zelan liteke alaba amarengandik era honetan bereiztea?

Hautsi zait barrua. Gaur Fatima kendu didate, Serranorekin ditudan zorrak kitatu arte. Berme moduko gauza bat dela esaten didate behin eta berriro, Serranok utzi zidan dirua eta eman didan laguntza ordaindu arte; baina, zelan sinetsiko diot, beti gezurretan ibili zaidanean.

Gizon boteretsu baten etxean egongo omen da. Gizon eta emakume onak ei dira, dirudunak eta maitagarriak, ondo etorriko omen zaio umeari. Baina, zelan liteke haur bat bere amarekin ezagutzen ez dituen batzuekin baino hobeto egotea?

Preso nago! Serranoren menpekoa naiz, guztiz! Ze arraio da berarekin dudan zor hori? Noiz amaituko dut ordaintzen, inon agertzen ez baita zenbatekoa den. Preso nago. Ezin naiz inorekin mintzatu, ezta pisuko neskekin ere. Gutunak? Kendu egiten dizkidate, eurek igorriko dituztela esanda. Eta miatze hori? Egunero, etxetik irten aurretik, goitik behera arakatzen gaitu Felipe deritzoten horrek.

Gaur, Hamidentzat ezkuturik neraman gutun bat aurkitu dit. Jo egin nau, konortea galdu arte. Eta, senera itzuli bezain laster, kalera bidali nau, lanera, Serranorekin dudan zorra kitatzera. Gorputza guztiz minduta daukat, eta hala ere...

Madrilen, 1998ko abenduaren 14an».

«Bertan akabatu izan bagenu» pentsatu nuen Saiden hitzak entzun ahala. Gure esku izan genuen torturatzaile hori, gure menpe; tiro pare bat eman eta kito! Bat gutxiago!

Jezabelen sufrimendua irudikatzen ahaleginduginen, nor bere baitan, Saiden kontaera entzun eta ostean nagusitu zen isiltasun mingarri hartan. Ahmeden ondoan jesarri nintzen, une latz haietan lagundu guran. Alferrik. Ez dago horrelako minik lasaituko duen hitzik, ez hiztegietan ez norberaren altxor literarioan. Dena esanda dago; topikoak, hitz hutsalak, lasaitu baino mina mingotsago egiten duten kontsolamendu antzuak.

«Gaixo nago. Ezin naiz zutik egon, eta ohean ere guztiz minduta sentitzen dut neure gorputza. Kizzy eta Caroline kezkatzen hasiak dira, nire gaixotasun hau kutsakorra izan daitekeelakoan.

Ez naute euren alboan nahi eta animaliak bezala erabiltzen naute.

Ezin mediku batenera joan. Sendatu? Igoal bai, baina gero Espainiatik kanporatuko ninduke-te. Eta Fatima? Borrokatzen segitu behar dut, bera baita gelditzen zaidan guztia.

Gaur likidoak ere botatzen hasi naiz, edan ahala gorakoa etortzen zait. Zikin-zikin dago nire ingurua, eta Kizzyk eta Carolinek ez dute garbitu nahi. Portaera hori ikusita joatea erabaki dut. Bilbora joango naiz, apartamentu txiki bat eskaini didate eta aurreztu dudanarekin izango dut alogera ordaintzeko, behar bezala osatu arte, bederen.

Bilboko lagun bat etorriko da nire bila eta haraino joaten lagunduko dit; gauzak, alta, berton utziko ditut: Kizzy eta Carolinerekin hitz egin dut eta haiek zainduko dituztela agindu didate. Laster osatuko naiz.

Barakaldon, 1999ko uztailaren 13an».

Hautsi zaigu barrua.

Hitzordu bat zuen Jezabelek

Hamazazpi telefono zeuden Bizkaiko zenbakiarekin. Gehienek gizonen izenak zeuzkaten alboan idatzirik; bostek, berriz, emakumeenak. Gizonei dagokienez, gehienetan, Jezabelen bezeroekin ari ginela pentsatu genuen, hartutako erantzunak bide: halakorik bertan ezagutzen ez zutela, emakumeek; edo bat-bateko urduritasun txarto azaldua, gizonek.

Birritan esan ziguten baietz, izen hori erabiltzen zuen prostituta bat ezagutzen zutela eta harekin noiz edo noiz ibiliak zirela aitorturik. Kasu bietan aspaldiko kontuez ari zirela azpimarratu ziguten, bazirela hiruzpalau hilabete haren berririk izan gabe.

Emakumeen kasuan zailagoa izan zen bilaketa, gehienetan erantzungailu automatikoak ihardetsi zigun eta. Mezu argia laga genuen hiruretan: «Jezabelen laguna naiz eta zurekin hitz egin nahiko nuke. Deitu, mesedez».

Etsitzear geundela, hiru egun geroago, dei bat jaso nuen eskuko telefonoan:

– Nor zara? –itaundu zidan telefonoz beste aldean zegoen emakume batek.

– Barkatu, baina zeuk esan beharko didazu nor zaren, ezta?

– Barka! Igoal ez dut ondo markatu.

– Ez, ez... itxaron! Ni Jezabelen laguna naiz –esan nuen inguru-minguru ibili barik–. Ez dakit izen horrek zer edo zer diotsun.

Isilik gelditu zen lipar batean; gero, ezer esan gabe eten zuen komunikazioa.

Ordu laurden geroago berriro jo zuen telefonoak:

– Bai?

– Barkatu, Jezabelen laguna zarela esan didazu, ezta?

– Bai, hala da –erantzun nion gero eta urduriago, beste aldetik mintzo zitzaidan emakumea lehenago deitu zuen berbera zela ezagututa.

– Nor baina?

– Ez dut uste ezagutuko nauzunik, eta berak ere ez; baina bada hemen nirekin, berak biziki maite duen pertsona bat: bere neba, Ahmed.

– Ahmed? –erantzun zidan, izen hartaz duda egingo balu bezala–. Jezabelek ez du familiarik hemen. Nor da Ahmed?

– Esan dizut ba, haren neba da. Aizu, denbora luzea daramagu Jezabel bilatzen eta ezin dugu askoz gehiago luzatu egoera hau, gaixo-gaixo dagoelako susmoa ere badugu eta! Gustatuko litzaidake zurekin non edo non gelditzea, Jezabelen berririk ematerik baldin baduzu, jakina.

– Arratsaldeko zazpietan, Zabalburuko plazan, taxien geltokian; eta eraman ezazu mutila –berriz eten zuen komunikazioa, nire erantzunaren zain egon gabe.

Saidi deitu nion, etxera, Ahmed hartu eta ahalik eta arinen joan zedin Bilbora. Arratsaldeko sei eta erdiak ziren. Ondoren, Mikeli deitu nion, eta Bilbon lotu nintzen berarekin. Autoa hartu eta hiribururantz abiatu nintzen.

Trafiko handia zegoen Bilboko sarreran, auto ilarak San Adrianeraino heltzen ziren eta nekez mugitzen ginen. Urduritzen hasia nintzen; kolpe bat eman nion bolanteari eta Juan de Garai kaleko goranzko hiru kaleak zeharkatu nituen, gorantz zihoazen ibilgailu guztien protestei muzin

eginez. Iralan bilatu nuen autoa uzteko lekua, eta handik oinez.

Zazpiak zazpietan heldu nintzen esandako lekura, Mikel, Said eta Ahmed artean iritsi gabe. Inguruak aztertzen hasi nintzen, telefonoz deitu zidan emakume hura ezagutaraziko zidan zerbaiten bila. Gizonak ziren nagusi ordu hartan, taxien artean berriketan batzuk eta bertako jarlekuetan besteak; emakumerik ere bazegoen, baina umeekin paseoan.

Emakumeak inguruan ibili behar zuela pentsatu nuen, erdi ezkutaturik, behar bezain ziur egon arte. Horregatik, plazaz bestaldeko espaloiak ere begiratzeari ekin nion. Orduan ikusi nuen, Iralarako aldaparen erdian dagoen uharte moduko espaloi txiki horretan, niri begira, artez. Ez nintzen mugitu, jakin nekien-eta berak ez zuela ezer egingo mutila nire ondoan ikusi arte.

Emakumea ere urduri zegoen, erlojuari begira. Gure begiak elkarren aurrean topatu ziren; artegatasuna erakusten zuten harenek, erregu bat nireek: egon zedin, alde egin gabe.

Iritsi ziren, azkenean, Said eta Ahmed; ez, aldiz, Mikel. Emakumeak Iralarantz jo zuen, bere

atzetik joango ginela jakinda. Azkar zebilen, eta sarri begiratzen zuen atzerantz, orpoz orpo gindoazela ziurtatzeko. Ondoren ezkerretara jo zuen, zezen plaza dagoen alderantz, geroago eta arinago, aldapan behera. Vista Alegre pasa eta Ametzola plazara heldu ginen eta hantxe gelditu zen, berriro ere atzera begiratzeko.

Atari batean sartu zen, bere mugimenduaz ohartuak ginela ziurtatu bezain laster eta eskailerak igo, hirugarren pisuraino. Atea zabaldu, sartu eta irekita utzi zuen.

Kiratsa zerion etxeari, usain guztiz jasangaitza zetorren txoko guztietatik. Okaztagarria zen oso. Emakumea sukalde txikian zegoen, mahai zikinaren ondoan, geldirik, izuturik. Keinu bat egin zigun, sukaldearen ondoan zegoen gelara joan gintezen. Ahmed lasterka sartu zen, bihotzak egoera hartan eztanda egin behar ziola oharturik. Gelara hurreratu ahala, gogorrago egiten zen kirats pairaezina.

Ohean etzanda aurkitu genuen Ahmed, eztulka ari zen emakume ahul eta argal baten ondoan, elkar besarkaturik. Jezabel ezagutu genuen Ahmeden begi malkotsuetan, bere mugimendu

urdurietan, bere hitz toteletan. Eta mugimenduetan ezagutu behar, ze emakume hark ez zuen zerikusirik Ahmedek maiz erakutsitako argazkikoarekin. Guztiz zargaldurik zegoen; begiak zulo ilun horietan galdurik, bizi arrastorik gabe. Eztulka etengabe, espasmozko ikarek Ahmeden aurka bortizki bultzatzen zutela; odola zerion sudurretik eta ahotik, eztul eraso bakoitzarekin batera.

– Oso gaixo dago! –esan zuen Saidek, begiekin haraino gidatu gintuen emakumea bilatzeaz batera.

– Ez du ospitalera joan nahi –berak, beldurrez.

– Bada, joan beharko du –Saidek.

Telefonoa hartu nuen poltsatik eta anbulantzia bat deitu genuen, ahalik eta arinen etor zedin. Hamar minutu geroago han zeuden medikua eta andari bi, alboan anda zeramatela.

– Jaungoikoa! –hots egin zuen sendagileak, eskua ahora eramateaz batera, ohean zetzan gorputz zargalak eragindako nazkari aurre egin guran–. Arin! Jarri iezaiozue gazur poltsa bat eta

erietxera, azkar! Eta, zuek guztiak ere ospitalera, azterketa medikua egitera.

– Tuberkulosia –esan zigun Jezabel aztertu zuen medikuak bost ordu geroago–. Ez dizuet gezurrik esan nahi, oso gaixo dago, ez dut uste luze iraungo duenik. Tratamendu gogor bat agindu diot, ea bere gorputzak erantzuten duen; baina oso ahul dago: gorputzaren defentsa guztiak makal-makal daude, indarge. Oso txarto dago, hil hurrean.

Azken hitzok, Jezabelen ohean ikusitakoak baino izugarriagoak iruditu zitzaizkigun, berbak errealitateak berak baino eragin handiagoa izango balu bezala. Hilzorian. Ez da pertsona horretara prestatzen, nahiz eta gertu izan egunero. Heriotza da, lehenago edo geroago, bere harrapakinaren bila datorrena, huts egin gabe. Hitzordua ipini zuten heriotzarekin itsasartea zeharkatzea erabaki zuten egunean, eta izkin egin zioten; baina honaino jazarri du, errukigabea.

Bost egun geroago hil zen Jezabel, ospitaleko ohe garbi batean, horrenbeste maite zutenak ondoan zituela. Eta ezagutu gabe maitatzera heldu ginen, bai eta bere alaba ere. Horregatik,

Jezabelek eskatu bezala, hitz eman genion ez genuela atsedenik hartuko Fatima aurkitu arte.

Ahmeden bost egunik gogorrenak izan ziren, Jezabelen ondo-ondoan, gau eta egun, arrebari begira, aspaldian berarengan ezagutu genuen begiratu maitagarri berberarekin. Bost egun elkarri agur esateko, eginengatik eta ahaztuengatik barkamena eskatzeko, berandu heltzeagatik negar egiteko. Bost egun munduari bi neba-arreben arteko maitasuna erakusteko.

Ospitaleko mediku eta erizainen bihotzak gatibatu zituen Ahmedek, behinola gureak harrapatu bezala. Eta haiek guztiek egindako presioari esker, lortu genuen Ahmed gure artean izatea, bere aurka susmatzen genuen kanporatze agindua baliogabetzea, alegia. Fatima aurkitu arteko baimena eskuratu zuen gazteak.

Ez genituen gure aurkako salaketak indargabetu, etorkinak legez kontra sartzen laguntzeagatik zabaldu ziguten auzia. Baina lasai geunden, Jezabelen hilzori luzean eman genuen hitzarekin guztiz gogobeterik. Eta engaiaturik.

Maria

Madrilera itzuli behar genuen, espetxean epaiketaren zain zegoen Luis Angel Serranorekin hitz egitera, berak Fatimaren berri emango zigulakoan. Ez genuen erraz ikusten, txerrikume hark gutxi baitzuen irabazteko guri laguntzekotan. Gogor jokatzea erabaki genuen.

Jezabelek lagun onak egin zituen ibili zen lekuetan, batez ere bere lankideen artean: Adjib eta Adele, berari esker jarri baikinen Ernestoren arrastoaren atzetik; Kizzy eta Caroline... Eta emakume horien guztien duintasun urratuari heldu genion, Serranoren aurka egiteko, Fatima aurkitzeko azken ahaleginean. Eta erantzun ziguten, nazka-nazka eginda zeudelako, Adele eta Jezabelen amaierak barrua bihurtzen zielako.

Kizzy eta Carolineren aitorpenak eskuan, Madrilera heldu ginen, Serranorekin hitzarmen bat egiteko prest. Emakume haien isiltasuna Fatimaren truke: Jezabeli egin geniezaiokeen omenaldirik onena.

Urduri nindoan goiz euritsu hartan Serranorekin eta bere abokatuarekin hitz egitera. Urduri, baina ez haren beldur nintzelako, neure buruaren beldur baizik. Gorrotoa nabaritzen nuen pauso bakoitzean, geroago eta biziagoa. Haren aurrean egote soilak soilik dardarka jartzen ninduen, sena galtzear.

Harroputz agertu zen, bere aurka zeuden salaketak inolako baliorik gabe uzteko prest nindoakiola jakiteak ematen zion harropuzkeriaz beteta. Eta horrela hartu ninduen, behinola Retiron hartu ninduen era berean:

– Tira, tira, hemen berriro, andereño... edo, barka ezazu, Maria Isabel Kortajarena.

– Akordio batera iristeko etorri naiz, baina ez nago denbora alferrik emateko prest –esan nion abokatuari, sentitzen nuen herra guztiz agerian uzten ari nintzelako esperantzan.

– Zein da akordio hori? –abokatuak.

– Litekeena da gizon honen aurkako salaketa larriak egiten dituen aitorpenaren jatorrizko kasetea galtzea; eta litekeena da hemen, zorroan, daramatzadan beste salaketa guztiz interesgarriak ere inoiz izan ditudala ahaztea.

– Eta zer egin behar du nire bezeroak horrela izan dadin?

– Ume baten bila nabil, lau urteko neskatila baten bila, eta berak badaki non topa dezakedan. Helbide bat nahi dut, besterik ez.

– Utziko gaituzu une batean gu biok bakarrik? –abokatuak.

– Berriro diotsuet ez naizela denbora galtzera etorri. Bi minutu –nik.

Kanpoko bulegoan nengoela begiak bustitzen zitzaizkidala nabaritzen hasi nintzen. Umiliaturik sentitzen nintzen kabroi haren aurrean, arrenka; neure mina nabariarazi nahi nion, Jezabelen eta Adeleren azken orduetako sufrimendua senti zezala bere barnean. Eta ezin. Indarrez heltzen nion zorroari, barruan neramatzan agiriak bihotzak eskatzen zidan mendekurako bidea emango zidatela pentsatzen, eta aldi berean ahaztu nahian.

Zorroa zabaldu nuen, barruan neraman argazkia ateratzeko. Ume txiki batek begiratzen zidan argazki paperetatik, amaren besoetan zoriontsu zirudien ume eder batek. Berriro sartu

nuen zorroan, atea zabaltzen ari zela nabaritu ahala.

«Ados» esan zuen Serranoren abokatuak, eta helbide bat eman zidan. Zorroan neramatzan paperak eta kasetea utzi nituen mahai gainean. Zutundu eta joan nintzen, atzera behatu gabe.

Bi ordu geroago Toledoko kale nagusira heldu ginen, Poliziak lagundurik. Serranok emandako etxera jo genuen, artez. Neskatila batek zabaldu zigun atea, Jezabel eta Ahmeden begiak nituen buruz buru, dudakor so egiten zidatela:

– Zer nahi duzu?

– Fatima?

Sorgor gelditu zen atearen ondo-ondoan, behinola bere amak deitzen zion izena berriro ere entzutean.

– Maria, nor da? –emakume baten ahotsa barrutik.

Emakumea txunditurik gelditu zen ate ondoan zeuden poliziak ikusterakoan. Umea besarka-

tu eta sukaldera bidali zuen. Gero, sartzeko esan zigun.

– Bagenekien noiz edo noiz gerta zitekeela; baina, sinetsi mesedez, guk beti maite izan dugu umea, sekula ez diogu minik eman. Alabatzat hartu genuen, nahiz eta jakin zein egoeratan eman ziguten.

– Andrea... –esan zion poliziburuak–, hobe duzu isiltzea eta zure abokatuaren zain geldi-tzea.

Ez zen, hargatik, isildu. Senarraren eta Serra-noren arteko tratuaz hitz egin zuen, luze. Antza denez, Serranok ez zekien zer egin umearekin, berarentzat Jezabel lotzeko bide bat zen, beste-rik gabe. Jakin zuen bere lagun bat neskatila baten bila zebilela, alabatzat hartzeko. Eta tra-tua egin zuen berarekin, diru kopuru handi baten truke.

Fatima ekarri zuenean, alabatzat harturiko neskatila zela esan zion emakumeari; aspaldian iritsia zela hari buruzko berria, baina sorpresa eman nahi izan ziola eta, ezkutuan gordetzea erabaki zuela. Isila zen neskatila. Fabianek, ho-rrela zeritzoten senarrari, normala zela eta den-

bora eman behar zitzaiola argudiatzen zuen sarri. Neskatila, baina, nirekin hitz egiten hasi zen, bere ugazaitari ihes egiten zion bitartean.

Orduan, zentzu handirik ez zeukaten gauzak esaten hasi ei zen neskatila: bere benetako amak Fatima deitzen ziola, etxe txiki batean bizi izan zela beste emakume batzuekin batera, gizonik gabekoa –nahiz eta sarritan oso txarto tratatzen zuen gizon bat agertzen zen eurenean–; bere aita urrun bizi zela, itsasoaz bestaldean... Susmo txarra hartu omen zion egoerari; baina, neskak eskatu bezala, ez zion ezer esan senarrari.

Mariak (Fatimak, alegia) ez zuen bere aitaordearekin egon nahi: gizonen beldur zen. Berarentzat gaiztoak ziren guztiz: bere beste ama (umeak zioen bezala) eta beste emakumeak jotzen zituzten eta han, gauez, bera zaintzen gelditzen zirenean, gelan itxi eta argirik gabe uzten zutela kontatzen zuen.

Hala ere, umearen jatorriaz galdetzen hasi omen zen, senarrari ahal zuen guztietan gaiaz berba egiten. Itzuri egiten zion Fabianek, ez zuen tutik entzun nahi, eta askotan ahozkora

madarikatzen zuen neskatila ekartzea erabaki zuen eguna, Fatimak arazorik gabe entzun zezan.

Ba ei zekien, bada, lehenago edo geroago helduko zela goiz hartako eguna, eta ez zion inolako enbarazurik sortu nahi. Gauza bakarra eskatu zigun, neskatilaren amari ondo tratatu zuela jakinaraz geniezaiola.

Bere bulegoan bertan atxilotu zuten Fabian, inolako erresistentziarik gabe.

Urte erdi gehiago eman zuten gure artean Fatimak eta Ahmedek. Sei hilabeteak igarota, agur esan ziguten biek, Madrilgo aireportuan. Indarrez estutu nuen Ahmed nire kontra eta bion arteko sekretua aintzat hartuko nuela agindu nion. Agurtu nuen Fatima, bere ama gogoan.

Hitza zor

Bi gauza promestu nituen Fatima psikologoarekin egon zen bitartean eta biak bete ditut.

Ahmedi bere arrebaren historia kontatuko nuela agindu nion, emakume harengan islatzen zen bere herriaren sufrimendua salatuko nuela kronika baten bidez.

Baina garrantzitsuagoa zen neure buruari emandako hitza betetzea, horixe baitzen behar nuen barne bakea lortzeko era bakarra. Horregatik, Saiden etxean astepasa nengoen batean, España tabernara joan eta Andres kontratatu nuen, Hamid izeneko marokoar bat penintsulara eraman zezan. Ekintzaren zailtasunaz hitz egin zidan, eta bi egunetan izan zuen gizona kamioitik gurpilen aldera igarotzeko erabiltzen zuen zulo hartatik pasatzen.

Ordaindu egin nion eta zain gelditu nintzen, neure buruarekin gero eta gusturago sentitzen nintzelarik. Serranoz pentsatzen nuen, eta berarekin egindako tratu zikinaz. Jezabel eta Adele, Kizzy eta Caroline saltzea izan zen hitzarmen lo-

tsagarri hura. Baina, eta zergatik bete behar dira horrelako tratuak? Akaso haiek zintzo jokatzen dute?

Ekintza hark loa eragozten zidan, haren modukoa ikusten nuen neure burua, Jezabelez eta gainerakoez pentsatzen nuen.

Maletak prestatuta Saidengana hurbildu nintzen.

– Ziur zaude? –berak.

– Sekula ez naiz ziur egon, baina saiatu nahi dut –nik.

– Inoiz behar banauzu, badakizu hemen izango nauzula, zakur bat bezain fidel.

– Lelo hori!

– Goraintziak eman Mikeli!

– Zure partez.

Azken begiratua bota nion mahai gainean zegoen egunkariari, «Poliziak, Juan Garcia, Luis Angel Serrano eta Ernesto Kamiruagaren heriotzen arteko lotura handia ikusten zuela» zioen albisteari.

Ondo lo egin nuen.